

> musika
azkena rock festival
> zine
orhum zine kluba

QEU

2,40 € 2008ko urria 188

> santa maria katedrala
juan ignacio lasagabaster
> sexualitatea
maider garcia de bikuña



piztu gasteiz

okupatu lugar

711-101
11



hala bedi
irratia

gasteizko
gaztetxea

25 urte komunikatzen



TXORIONAK!

20 urte okupatzen



ensueños loinaz

madre vedruna 18

vitoria-gasteiz 945 13 38 38

lastairak · somierrak · burkoak · ohe arropak

Bai Euskarari Ziurtagiria *gu ziur gaude*



“profesionalak
garelako”

“lehiakorragoak izan
nahi dugulako”



“jokaldirik onena
delako”

“elkar ulertzen
dugulako”

ziurtagiriaren **elkartea**



902 430026

baieuskarari.org

1.500 entitate baino gehiago

skunkfunk
people do funk



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geupertsonaia

juan ignacio lasagabaster,7-11
santa maria katedraleko zuzendaria

geugaia

piztu gasteiz. urriak 1113-17

arte txokoa

jose luis manzanedo, patxo:22-23
'miradas de cristal' liburua

bathirutan

orhum zine kluba25-27

bathirutan

maider garcia de vicuña,28-30
emaize-ko sexologia

batbitan

ARF, azkena rock festival. kronika32-33

historia&euskara

errodrigo zaratekoa34-35

beste:


gaztezulo20

literatura dosi txikitari31


geusex37

agenda, kaletik, euskaltasunean, proposamenak,
araba bixotzian, historia zutabea eta umorea

7-11




13-17




22-23



28-30



GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga, naraa cuesta eta ane pedruzo | azaleko diseinua: albaro anta | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: patxi zubizarreta, mikel ayerbe, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa) eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



zeregin euskaraz [urria]

GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

URRIAK 26 igandea
BARGONDIA (541m.) eta
BALTZOLAko kobazuloak
Induzi auzotik (Arratian)
GOIZEKO irteera
linternak behar dira
lovaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduraduna: Xabi B. (945227303)
geurekinmendra@gmail.com

KULTUR ERROTA

urriak 21 asteartea
JONE BAKARLARIA: 'KATEAK'
anoetako jone bakarlari gaztea bere
bigarren lanarekin datorkigu parralera.
'kateak' lana aurkeztuko digu, 11
abestiz osatutakoa, 11 istorio
kontatzen dituen lana. liluratu gintuen
bere lehen lanaren jarraipena dugu
honakoa, progresioa nabaria delarik
parral tabernan, 20:30ean

IRAKURLE KLUBA

urriak 2 osteguna
'ARMAIRUTIK LIBURUETARA (ETA
ATZERA ARMAIRURA): EUSKAL
LITERATURA ETA
HOMOSEXUALITATEA'
aurkezpena eta mahaingurua
RIKARDO ARREGI & ANGEL ERRO
(mikel ayerbe moderatzaile)
urriak 30 osteguna
JOKIN MUÑOZ, ANTZARAREN
BIDEA, ALBERDANIA 2007
hikaatenean, pintore kalea 13,
20:00
kontaktua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com
geuelkartea@grn.es / 945222153

MINTZALAGUNA

08-09 ikasturtea
izena-emateko epea: urriaren 1-15
info: mintzalaguna@geugasteiz.com
692730444 (mikel)

Zabaldu!
lagunartea zure euskaraz bizipenak zure libelak
ahoa zure zaletozuek euskaraz bizitzera
Hurbildu mintzalagunera!

PIZTU GASTEIZ!!

okupa tu lugar
hb irriariaren & gaztetxearen eskutik



PIZTU AURRETIK...

urriak 4 larunbata 22:00
CHE SUDAKA zuzenean
'mirando el mundo al revés'
formatu akustikoan
urriak 9 osteguna 21:30
KATAMALO
'erantzi'
poesia + musika zuzenean

URRIAK 11

PIZTU GASTEIZ!!
jai-giroa gasteiz osoan zehar

MATXETE (herri mugimendua)
euskal dantzak, joseba tapia, anari,
morau, agotak, malabare tailerra,
gilkitxaro antzerki taldea, bertso sound
system, harresian zulo, herri
mugimenduen tribiala...

GAZTETXEA

arpistak, ahtren aurkako parodia,
gasteizko musika taldeen kontzertuak
(maldan behera, kinka larri, pshiko
sozial, expolio, mix&t, musikberbena)
eta dj-ak
LANDATXO (18:00tik aurrera)
kontzertuak (green valley, deabruak
teilatuetan, doctor deseo, piztu punk!a
kontzertu berezia, indarrap) eta bideo
proiekzioak

UMEEN GUNEA

ezkoriazta eskibel plazan
errokodromoa, futbolin erraldoia,
puzgarriak
parkean
zirko tailerra, globoflexia, eskulanak,
antzerkia, jakin eta jolas kontu-
kantalariak, kukubiltxo, herri jolasak,
kometa tailerra, txalaparta, ipuin
kantalaria
AUZOLAN FRONTIOA
pilota partidak, putxe herrikoia eta
arabako gazteen sokatira finala
**KOMUNIKAZIO GUNEA (HB
IRRATIA)**
-memoriaren lantegia(martxoak 3 eta
ahaztuak), irritai tailerra, hala bediren
zuzeneko emisioa, herri bazkaria,
bertsoak + umorea
-egun osoan zehar Irratiaren ate irekiak


KALE ANIMAZIOA

erraldoiak, buruhandiak, zpeiz mukaki,
kale antzerkia, txaranga, txistulariak,
albokariak, txalapartariak, uhinak, zirko
ibiltaria, judimendiko zarpantzarrak,
dantza garaikidea, batukada

www.txorionak.org
hb & gaztetxea

BERTSO TAILERRAK

amaia zentroan
ostegunetan 20:00-22:00. doan
urriak 2
GAI-JARTZAILLETA IKASTAROA
irakaslea: unai elizasu
urriak 16
BERTSOGINTZA IKASTAROA
irakaslea: andoni egaña
urriak 23
KANTAERA IKASTAROA
irakaslea: imanól kamio
(txandala, esterilla eta liburu bat ekarri)
urriak 30
GORPUTZ ESPRESIOA IKASTAROA
irakaslea: ander lipus



BERTSO JAIALDIA

urriak 9 osteguna
beñat etxepare aretoan 20:00etan
miren arretxe, jon barberena, unai
iturriaga, etxakun lekue, manex agirre
eta beñat gaztelumendi (irati
mendiguren aurkezle)
info+:
arabako bertsozale elkarte
benito perez galdos z/g
01002 gasteiz
tel: 945 010505 - 675707971
araba@bertsozale.com

EUSKARAZKO UNIBERTSITATE-LIBURUEN IV. ERAKUSKETA

urriak 14-16
koldo mitxelena liburutegian (arabako
kanpua)
egitaraua & info+:
www.euskararenetxea.net/liburutegia
antolatza: eire (unibertsitateko euskal
irakasleen elkarte)
www.eireka.org

XXXIII ANTZERKI JAIALDIA

KUKU BAZAR ANTZERKI TALDEA
BIDEAN
umorea, musika eta poesia
plaza berria, 19:00
GORAKADA ANTZERKI TALDEA
IRUDIMENKO HIRIA
7 urtetik gorakoentzat
sarrerak: 6 euro
principal antzokian, 18:00

KMK-08

urriak 5, Irurra
OINARRIA ERAIKITZEN
www.kilometroak.net

NAFARROA OINEZ 2008

urriak 19, iruñea
ATERA EZAZU MIHIA!!
jaso ikastola
www.nafarroaoinez.net

BEGIRALE & ZUZENDARI IKASTAROK

izena-emateko epea: urriak 6
Info++ info@arduraduneskola.org
gurutze zuria kalea, 1 behea
www.arduraduneskola.org

KONTSUMO GELAK

-LANTEGIAK
publizitatea, etiketak, erosketak,
elikadura, segurtasuna...
(bigarren hezkuntzako 2.zikloko
ikastetxeak,
helduentzako ikastetxeak eta helduen
elkarte eta taldeak)
-PRESTAKUNTZA PAKETEAK
kontsumoari buruzkoak, kontsumo-
gatzen babesaren ingurukoak,

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

etxeko segurtasuna...
(bigarren hezkuntzako 2. zikloko ikastetxeak, helduentzako ikastetxeak eta helduen elkarte eta taldeak)
-IKASTAROAK & HITZALDIAK
(biztanleria guztia orohar)

945016600
a-kontsumo.gelak@ej-gv.es

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

ikastaroak eibarren
2008ko udazkena
jendaurreko komunikazioa, hizkuntza, hezkuntza eta teknologia berriak, gizarte gaiak eta interes orokorreko gaiak
info+: markeskoa@ueu.org
www.ueu.org

HAURRENTZAKO ALBUMAK SORTZEKO III. ETXEPARE BEKA

epea: azaroak 28
haurrei zuzendutako idazlan ilustratu hoberenarentzat
bakarka edo taldeka aurkezteko aukera
6.000 euroko laguntza + lanaren argitalpena
lanak burlatako udaletxean jasoko dira

GASTEIZ ARTEAREN ESKUTIK

BEGIRADA BERRI BAT GURE HIRIKO HISTORIAN
urriak 14 - abenduak 11
ikastaroa, 18 saio
iparralde g.e-an
astearte eta ostegun, 20:00-21:30
49,417/24,57?
antolatza.: gasteizko udaleko kultura saila
www.vitoria-gasteiz.org



BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

PAGOETAKO PARKE NATURALA
08 urria-09 ekaina
bisita gidatuak euskaraz
943835389



MONTEHERMOSO KULTURUNEA

- **ERAKUSKETAK**
-**PASAHITZAK**
urtarrilak 4 arte
emetasunari buruzko irudikapen berriak
5. zikloa
- SESTAON BIZI**
urriak 17-abenduak 7
industria-kulturaren amaiera

- **EKITALDI KULTURALAK**

- HARI GORRIAK**
urriak 7-10
bideo dokumental sorta
gasteizko kulturaren ordezkarien lekukotasunak

- **HEZKUNTZA PROGRAMA**

- **BISITALDI GIDATUAK**
asteazkenetan 19:30 /
larunbatetan 13:00
euskaraz
- **HAU EZ DA BISITA BAT**
igandero 13:00
- **TALDEENTZAKO BISITA**
DINAMIZATUAK
asteartetik ostiralera 18:00
doan. alde zureko izen-ematea

- **TAILERRAK**

- **CMKTALDEA**
larunbatero 11:00-12:30
doan, alde zureko izen-ematea
8-13 urte bitartekoentzat
- **TXIKIART**
larunbatero 18 :00
doan, alde zureko izen-ematea
4-8 urte bitartekoentzat (heldu batek lagunduta)

- **TAILER-BISITAK**

- (alde zuretik izena eman behar da)
- ikuspegia aldatuz. erakusketa
baliabide hezigarri gisa (11 :00-14 :00 ;
18 :00-19 :00)
- kontaktuan gaude
- += (gehi ken berdin) berdintasunaren politikak eta sorkuntza garaikidea
- gasteizko: ikus-entzunezko komunikazioan heziketa eta plastika:
irudia irakurtzen ikastea (lehen hezkuntzako 4, 5, eta 6)
- zinema eta giza eskubideen jardunaldiak (urriak 15-azaroak 30)
- zentzua emanez: hezitzaileentzako formakuntza

- **ANDRA MARI KATEDRALA**

- 945255135
www.catedralvitoria.com

- **GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA**

- erreserbak: andramari katedralaren bisitarien zentroan / 945 255 135
4 bisita eguneko (iraupena: ordubete):
11:15, 12:45; 17:15, 18:45
2 euro pertsonako

- **IRUÑA-VELEIA**

- 945403044 / 652720947
www.veleia.com

- **GATZ HARANA. GESALTA AÑANA**

- astelehenetik igandera (jaiegunak barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00 / 17:00 / 18:00
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako haurrak:
dohainik / taldeak: euro 1
945351111
www.vallesalado.net

- **ARTIUM**

- **ERAKUSKETEN BISITALDI GIDATUAK**

- Asteazken, larunbatero eta igandero (11:30, euskaraz)
banako bisitariarentzat. doan. plaza mugatuak

- **TALDEENTZAKO BISITALDI HITZARTUAK**

- derrigorrezkoa alde zuretik erreserba egitea (73 euro)

- info + erreserbak: 945209010

- www.artium.org



GAUEKOAK

adi udazkeneko egitarauari
+ IRUDI TXOKOA
(ikus banatutako koadernotxoak)
www.gauekoak.com

GALTZAKOMIK KOMIKI LEHIAKETA



epea: azaroak 26
www.galtzaundi.com

AIARALDEKO KULTUR ERROTA

urriak 8
TRONPETA MAGIKOA (UPO, TOPOTIN eta BARTOLINA PAILAZOAK)
audioko basalarrian elkartean 18:00
basalarria elkartea
urriak 26
MAGIA (TOR magoa)
arespalditzako udaletxean 17:00
hogeitalau elkartea

www.topagunea.org



G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA' DIGITALA jaso nahi?

bidalguzuz zure e-posta
geu@geugasteiz.com helbidera eta
hilero jasoko duzu.
gasteizko euskarazko ekintzen bilduma da G.E.A.
ezinbestekoa Gasteizen euskaraz mugitzeko!



laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

garaiON

SORKUNTZA & NATUR
DINAMIZATZAILE ENPLEGU
TAILERRA

izena emateko epea: urriak 10
IKASI ETA SOLDATA IRABAZI
enpresa berritzailea sortzeko gogodun
pertsonak behar dituzte, sorkuntza eta
natur arloan sentzibilizatuak, jolastea
maite dutenak, harremanetan
gaitasundunak, irudimen handikoak
eta aisiaren kontzeptu berri bat
sortzeko gogoia dutenak, landa
eremuan kultur zerbitzu berriak
sortzeko

ikastaroan parte-hartzeko baloratuko
dena: sortzailetasuna arte eszeniko eta
plastikoetan; naturzaletasuna;
aisialdian esperientzia, ikasketa maila,
ekintzaile izaera, 25 urte beteta izatea
ikasle bakoitzak hileroko 900 euroko
soldata jasoko du
interesatuak deitu: 627119096 (amaia)
edo 637050146 (elena) edo idatzi:
garaionaturarte@gmail.com
antolatzaile: garaion naturarte & inem

kanGEUroak

umeak zaintzeko prest bazaude
eman zure izena zerrenda
honetan eta zerbitzu hau behar
dutenak jarriko dira zurekin
zuzenean harremanetan.
horretarako, bidali
geu@geugasteiz.com helbidera
zure izena, telefonoa eta
ordutegia
(goizez/arratsaldez/gauez/egun
osoz/asteburuak)

umeak zaintzeko lagun bat behar

2 ume (3 eta 6 urte) zaintzeko
lagun bat behar da, euskalduna
hobe. astearte+ostegunak, 18:00-
21:00 (egon, jolastu, etxeko-
lanak). ariznabarra auzoan. xabi,
653721808

GEU elkartearen oharra
euskaldunon lan poltsa sortu berri
dugu elkartetik pasatzen diren lan
eskaintzen zabalpena egiteko.
hauen berri izan nahi izanez gero,
bidali izen-abizenak eta
kontakturako telefonoa
geuelkarte@gmail.com helbidera
eskerrik asko!

LUR EREMUA SALGAI

BASOAREN ERDIAN. OSO LASAIA
ZUHAITZAK ETA FRUITU
ARBOLAK.
TXABOLA HAUNDIA ETA URA.
10.000 M. baino gehiago
Paul herritik hurbil (Pobes
aldean)
60.000 eurotan
945-334420
Utzi mezua edo-ta
626646704

IRAILA, GIRO BETE EUSKARA GASTEIZ & ARABAN



IRAILAK 13.

**AEK ZADORRA BERE EUSKALTEGI BERRIA IREKI
LAKUABIZKARRA AUZOAN**

IRAILAK 14.

ZIGOITIA EUSKARAZ-EN EGUN NAGUSIA

IRAILAK 21.

EUSKARA AÑANAN MINGAINEAN ARMIÑONEN


IRAILAK 26.

**ARMENTIA IKAS-
TOLAREN 15.
URTEURRENEKO
GALA HUNKIGAR-
RRIA PRINCIPAL
ANTZOKIAN**



- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
TI/Fxa: 945 465 921
TI. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**


www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI



JUAN IGNACIO LASAGABASTER
ANDRA MARI KATEDRALAREN ZUZENDARIA

**“Monumentuen zaharberritze
kulturak etengabekoa behar du izan”**

t. josune velez de mendizabal
a. edorta sanz

Juan Ignacio Lasagabasterrek Gonzalo Arroiten lekua hartu du Santa Maria Katedralaren Fundazioko zuzendari-gerente lanetan aurtengo apirilaz geroztik. Arabako ondarean ezinbesteko pisua eta garrantzia duen arkitektoa, alta, ez da sekula Andra Mari Katedralaren zaharberitze egitasmotik urrun egon. Izan ere, Lasagabaster egun gauzatzen ari diren lanen Plan Gidatzailearen aita eta bultzatzailea baitugu. Katedralak bizia berreskuratu du eta bisitarien eskaintzen die egunetik egunera gaurko Gasteiz eta Erdi Aroko Victoriaren historiaz gehiago sakontzeko aukera.



“Zaintze lanak amaitutzat

Ilusioa ez zaio agortu Juan Ignacio Lasagabasterri Alde Zaharreko Erdi Aroko tenpluaren berriztatze lanetan. Hamar urte dira abiatu zela Andra Mari Katedralaren Plan Gidatzailea. Jausteko arriskua egonik, eta mendeetako denboraren pisuak eragiten dituen kalteei heldu nahian, Lasagabasterrek lideratutako taldeak XIV.eko eliza honi erreparatzea erabaki zuen. Ordutik “Obretan eta Irekita”, milaka eta milaka bisitari jaso ditu Gasteizek.

Nazioarte mailan zabaldu du Andra Mari Katedralak Gasteizko izena. Zer du eraikin honek horrenbesteko arrakasta eta ikusmira sortzeko?

Eraikinaren zaharberitze lanak jendeari irekiak izateak egiten du egitasmo hau berezia. Eredu honetan autodidaktak garelako ere esan dezakegu... Ondarea guztionan den premiaz abiatu gara hasieratik. Ondarea kultura dugu eta neurri horretan kontserbatu beharra dugu, gure bizitzaren eta kulturaren berri ematen digulako.

“lanak egin ahala, aukera gehiago aurkitu dugu eraikinari etekin soziala ateratzeko”

Era berean, Kudeaketa Organo berritzailea osatu dugu, zeina Gasteizko ezaugarrietara egokitu dena. Hau da, Eliza eta Instituzio zibilak uztartzen ditu. Estatu espainoleko gainontzeko tokietan existitzen ez den eredu kudeatzailea da hau. Adostasuna lortu dugu giza ondarearen mesedetan. Eta horregatik, hain justu ere, eraikina baliagarria izan eta bizirik egon dadinaren aldeko lanean ari gara.

Ingalaterra eta Suitzan ibili berri zara azken hilabeteetan...

Europako gainontzeko eliza eta eraikinetan zer-nolako interbentzioak egiten ari diren jakitea interesatzen zaigu. Nola antolatzen dira bertan katedralak? Eta galdera honi eran-

tzuteko bi ideien inguruan sakondu nahi izan dugu. Batetik, kontserbazio lanari dagokionez eta bestetik, jendeak eraikin honekin duen harremana zein den aztertu dugu. Ingalaterran adibidez, eta batez ere erlijioak gizartean izan duen pisuagatik, jendearen interesa zaharberitze lanekiko oso handia da. Fidel anglikanoek eliza euren dela ulertzen dute eta ondorioz zaindu ere egiten dute. Tradizioak jendearen parte-hartzea bultzatzen du. Bolondresak dira katedraletan bisita gidatuak egiten dituztenak, eta horrek nolabait merkantilismoaren aurka egiten du. Azken finean eraikinaren kontserbazioa fidele erantzuna da.

Hortaz, elkarlana Europako gainontzeko katedralekin ezinbestekotzat hartzen duzue Gasteizko tenplu gotikoaren lanen trebakuntzarako?

Batetik, bisitari eta herritarren elkarrekintza ezinbestekotzat jotzen dugu ondarea kontserbatzeko helburua bete dadin, eta bestetik, profesionalen arteko informazioaren trukatzea ere beharrezkoa dugu gure eremuan eta teknikan hobetzeko. Adibide batzuk jartzearen, aipatu beharra dago Salysburyko katedralarekin izan dugun harremana oso emankorra izan dela. Interes handia sortu baitie guk lanak egin bitartean bisitarien lantzen ditugun segurtasun neurrien gaiak. Apartekotzat jo baitituzte.

“eliza eta instituzio zibilak uztartzen ditu. estatu espainoleko gainontzeko tokietan existitzen ez den eredu kudeatzailea da hau”

Suitzan, aldiz, kongresu espezializatuago batean egon gara gonbidatu, Estatu espainolek gonbidatua izan den Katedral bakarra izan gara gainera! Hemen teknika profesionalei buruz aritu gara. Azkenik ere, aipagarria da Basilean egon garenean bertan bizi den Marcial Lopez, Oviedoko harginak hartu gaituela. Hamar urte dira elkar ezagutzen dugu-

emateak eraikinaren suntsipena dakar”



la. Basileako katedraleko harginen burua da eta bere ezagutza oso baliagarria izan zaigu beti.

ONDAREAN INBERTITZEA SEKULAN EZ DA GASTUA

Plan Gidatzaileak 2009 zuen hasiera batean epemuga, baina orain epea 2012. urtera arte luzatu da. Noiz arte jarraituko dute lanek?

Inoiz ez dugu datarik zehaztu. Bada esaldi bat honakoa dioena: Plan Gidatzailea ez da garapen baten argazki finkoa. Plan Gidatzailea hasi aurretik Katedralaren arazoak zeintzuk ziren jakin nahi izan genuen, egoera zein zen jakin nahi, hain justu, eta ondorioz konturatu ginen azkar ekin behar geniola eraikinaren hondatzeak gehiagora egin ez zezan. Ikerketa horretatik atera zen Plan Gidatzailea. Bertan jaso genuen Katedralak erabilpen erlijiosoaz gain, bestelako zerbitzuak -laikoagoak edota ludikoagoak- eskaintzeko aukera ere eman zezakeela.

“horrelako proiektu handi eta oparo bati epemuga jartzea tranpa litzateke, jasangarria behar du izan, lehenik eta behin”

Hortik garatu genituen bisitaldien eskaera, portikoaren zaharberitzeak ekarriko lukeen atariaren erabilpen publikoa, dorrea miradore bilakatzea... Eta jakina, hori dena ez zegoen hasierako Planean jasota. Lanak egin ahala, aukera gehiago aurkitu dugu eraikinari etekin soziala ateratzeko. Honek guztiak kostu handiagoa dakar eta horretarako, noski, bideragarritasun ekonomikoa behar dugu. Horregatik, egun prozesu horretan gauden heinean denbora ere irabazi behar dugu. Horrelako proiektu handi eta oparo bati epemuga jartzea tranpa litzateke, jasangarria behar du izan, lehenik eta behin.



Bisita gidatuak eskaintzen ditu zaharberritze lan honek. Zer da duela urte bi Katedrallean egon ez denak aurkituko duen aldaketa nabarmenena?

Badira zenbait gauza, bai. Santa Maria Ataria, non hormak eta eskulturak garbitu diren eta teknologiari esker polikromatuak ikus daitezkeen; kripta eta honen azpian lantzen ari den museorako gunea; edota dorrea bera. Azken honek bisitari asko erakarri ditu azken hilabeotan. Berez dorrea ibilbidearen azken gutiziatzat genuen aurreikusita. Baina behin garbiketa eta zaharberritze lanetan hasita pentsatu genuen bertan zegoen karga-jasogailua baliogarria izan zitekeela bisitetan.

“eraikin historiko baten arkitektoa finean denbora da. eta lan hauek historia ulertzeko gakoak eman dizkigute”

Hortaz, dorreak dituen 58 metroetatik 27ra igo daiteke bisitaria lan-igogailu honi esker. Behin goian zaudela hiria bistara duzu eta Gasteizko kokapen geografikoaz ohartzeko zara, historiari so egiteko aukera ederra... 1856. urtean hiriak sute handia jasan zuen eta egun dorrean horren ondorioak ikusgai dira.

Ikuspegi berriak barneratzen ditu bisitariak behin Katedralera gerturatuta. Hori esan nahi duzu?

Bai, hala da. Jendeak, bertakoa izan edo ez, hiriaren inguruan gehiago ikasten du bisitara etorrira; ulertzen du nola eta zergatik dagoen kokatua Gasteizen dagoen tokian. Eta are gehiago, bertakoa ez denak bere hiriaz ere ikas dezake bisita honi esker. Izan ere, bere bizilekura bueltatu eta eraikinak beste modu batez begiratuko ditu. Eraikin historiko baten arkitektoa finean denbora da. Eta lan hauek historia ulertzeko gakoak eman dizkigute.

Eraikinaren giza zerbitzuaz mintzatu zara. Ataria da funtzio hori betetzen duen lekuetako bat. Hor kultur ekintza zenbait gauzatu dituzue azken urtean.



ALDE ZAHARREKO AUZOKIDEEI ZUZENDUTAKO BARKAMEN ETA BISITA GIDATURAKO GONBITA-GUTUNA

Katedralaren auzokide maitea,

Santa Maria Katedrala Fundazioko eta haren Zaharberritze Proiektuko zuzendari lanetan zenbait hilabetez aritu ondoren, egoki iruditu zait zurekin harremanetan jartzea neure burua aurkezteko eta neure lankidetzara eskaintzeko Katedraletik hurbilen bizi diren auzokideei - zuri, besteak beste- bertan gauzatzen diren lan eta jardueren eragina (bereziki oraingo fasekoena) jasan dezakezuen alderdietarako, izan ere, fase honetako obrak aurreko faseetakoak baino sustapen eta garrantzi handiagoak dira.

Lehenengo eta behin, neuk eta Fundazioko lan-taldeetako kide guztiek barkamena eskatu nahi dizugu obretan aritzeak eta Zaharberritze Proiektua gauzatzeko jarduerak orokorrean eragiten dituzten eragozpenengatik. Eragozpen horiek ahal beste murrizten saiatzen garen arren, badakigu Katedralaren auzokideak zaretela trabak jasaten dituzuenak, hori dela eta, zeuen lankidetzara eta ulermena eskatu nahi dizuet.

Bigarrenik, neure irizpidea gauzatzen ari garen Proiektuak bereziki auzoko pertsonen balio behar dela dela adierazi nahi dizut, eta zentzu horretan, hori Hiriguneko Elkarteei azaltzeko ekimenen bat antolatzeke aukeraz gain, neure taldea, eta ni neu ere, planteamenduren bat egin nahi diguten auzokideei informazioa eta azalpenak emateko prest gaude.

Auzokidetasun onaren adierazgarri gisa eta lanen bilakaera zuzenean ezagutu ahal izateko, gutun honekin batera bi gonbidapen bidali dizkizugu obrak ikustera etortzeko. Nolanahi ere, aldezturik erreserba egiteko deitu 945255135 telefono zenbakira, eta bisita egiteko unean erakutsi gutun hau.

*Adeitasunez,
Juan Ignacio Lasagabaster
Santa Maria Katedralako zuzendaria*

Bai hala da, egun prentsaurrekoak bertan eskaintzen ditugu, eta ekintza kulturaletako egitarauaren zati bat ere bertan ematen da, hala nola, idazleen hitzaldiak eta zenbait kontzertu. Ikasturte honetarako nobela historikoa izango dugu nagusi, eta musikari dagokionez, urriaren 4an Marlango gurean arituko dela aurreratu dezakedan guztia da. Antzezlanak ere egin nahi ditugu baina... Programa osatzen ari gara momentoz.

“dorreak dituen 58 metroetatik 27ra igo daiteke bisitaria lan-igogailu honi esker”

Ideiak egon badaude, egitasmoa aurrera doa, eta pausoz pauso joan beharra dago. Ezin bidean dauden ekintza guztiak ageriko egin, momentuz, baina zuen eginbeharren aurrerapen txikiren bat ematerik ba al zeniguke?

Hiritarrek komunikazio bide gehiago irekitzeko saialdian gaude. Horregatik, gure webgunearen hirugarren orrazketa egiten



dihardugu, zer eta zerbitzu hau elkarreragileagoa izan dadin. Blogak irekiko ditugu bertan. Orduan hiritarrek euren iritzia eman ahal izango dute, eta baita lurterra eta jainkotarraren arteko eztabaida piztu ere.

Proiektu honek duen onenatarikoa da azken finean hiritarrak potere publikoengan eragina izan dezakeela. Hau da, politikariak hiritarren ordezkariak dira eta hiritarrek Katedralaren lanetan interesa izanez gero ondarean finantziario zehatzagoa eskatu edo exijitu diezaiekete; ondarean inbertitzea sekulan ez baita gastua.

Katedraleko sloganak dio “Obretan eta irekita”. Irudikatzen al duzu “Irekita eta lanik ez” dioen bestelako bat?

Bai, bai, kar, kar... imajinatzen dut. Datorren urtean, hain justu ere, Katedraleko atal batean lanak amaituko dira. Areto handi bat izango da bukatua egongo dena, 500 lagunentzako tokia eskainiko duena. Hala ere, ulertu behar dugu ez Katedralean, ez ondare publikoko bestelako eraikinetan ere, zaharberitze lanak ezin direla inoiz eten. Nahikoa da eraikin bat eraberritua dagoela pentsatzea suntsitzen hasteko. Monumentuen zaharberitze kulturak etengabekoa behar du izan ■

2
betaurreko
98€
kristalak barne

2
combina
2
MULTIOPTICAS

Markarik onekin

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33
GASTEIZ

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Promoziok 08/10/31ra arteko balioa du

DAVID SAENZ, 34 urte, kazetaria

David Leioako unibertsitatean murgildu zen informazioaren munduan eta dagoeneko urteak daramatza Radio Vitoria-n lan egiten, nahiz eta esatari moduan Radio Rioja alavesa-n hasi. Hainbat egunkaritan idazten ere aritu da eta kazetarien artean "Trintxe" izengoitiarekin ezagunagoa da. Oraingoan rolla aldatu eta berari dagokio elkarrizketatuaren papera. Ikus dezagun galderak erantzuten, egiten bezain trebea ote den!

- Kirolzale amorratua da eta ohikoa da bizikletaz ikustea Gasteiz zeharkatzen, gidatzea gustuko badu ere, hirian erosoago baitago bizikleta gainean.
- Gainera sukaldatzen trebea da eta janaria erosi, prestatu eta ondoren erabilitakoa garbitzen duen horietako bat dela dio, hori mauka!
- Pasa den gabonetan aita izan zen, eta bere semea, Endika, gertatu zaion gauzarik onena dela aitortzen du Davidek.



t. ane pedruzo
a. edorta sanz

Zergatik "Trintxe" kazetarien artean?

Behin irratiko lankide bati trintxeretatik zeto-rrera zirudiela esan nion, grabazio estudioetatik izerditan blai atera zelako. Orduetik "Trintxeras" deitzen hasi nintzaion baina berak buelta eman, eta niri jarri zidan izengoitia... orduetik lanean "Trintxe" naiz...

Duzun biziorik handiena? Lehen erretzea zen, baina zorionez erretzeari utzi nion duela ia urte eta erdi. Dena den askotan erreko nuke... Horrez gain, atzazkalak jaten ditut, betiko ohitura da.

Bertuterik? Entzuteko gai naiz, jendeak esandakoa barnatzen dut.

Akatsik? Pazientzia gutxi daukat.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Bidezkoa izatea. Gizakiak, izaki den unetik, merezi duena izan behar du. Bakoitzak dagokion sufrimendua, alaitasuna... izateko eskubidea dauka, baina banaketa bidezkoa izan behar da, batzuk besteak baino gehiago edo gutxiago izatea ez da onargarria.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Itxurakeriak.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk?

Noiztik? Aspaldidanik. Lanean, liburute-gian..., hainbat tokitan irakurtzeko aukera

daukat, izan ere, edozein komunikabide irakurtzea gogoko dut.

Egunkari bat? Berria.

Telebista saio bat? Ez dut telebistarik ikusten, ez daukat denborarik.

Beldurrik? Beldur anitz dauzkat, baina bakardadea azpimarratuko nuke.

Eguna ala gaua? Gaua, lasaiagoa da, baita magikoagoa ere.

Gasteizko gaua non? Alde zaharrean.

Liburu bat? Irakurri dudak azkena. Ez dut gogoratzen izenburua baina *slow* mugimenduaren inguruan hitz egiten du... Gure bizitzan noizean behin gelditzea, lasaitzea behar-beharrezkoa dugula aipatzen du, azkarregi bizi baikara.

Film bat? Zergatik? 'Todo sobre mi madre'. Zinemaren birritan ikusi dudak pelikula bakarra da. Ismael Lö-ren musikak izugarri inpresionatu ninduen.

"Behin irakurri nuenez, etorkizuna aberatsen asmakizun bat da txi-roak gaur egunaz arduratu ez daitezene... Ni egunarekin gelditzen naiz"

Edari bat? Garagardoa.

Janari bat? Arroza, edozein eratan ona dago.

Kolore bat? Berdea.

Musika talde edo musikari bat? Silvio Rodriguez.

Kirol bat? Mendira joatea. Gorbeira urtean sei edo zazpi alditan joaten saiatzen naiz. Oso kirolzalea naiz, beharrezkoa dut desestresatzeko.

Zer da Gasteizek duen onena?

Lasaitasuna.

Txarrena? Lasaitasuna ere, kar-kar!

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Zaila da. Ez hizkuntzarengatik, guregatik baizik. Euskaldun askok ez dugu euskaraz egiten, ohituragatik, nagitasunagaitik... eta hori akats larria da. Gutxienez Endikarekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz beti.

Iragana, eguna ala etorkizuna? Behin irakurri nuenez, etorkizuna aberatsen asmakizun bat da txi-roak gaur egunaz arduratu ez daitezene... Ni egunarekin gelditzen naiz.

Zer eskatzen du herriak? Askatasuna.

Zer deritzozu gaur egungo kazetari-tzaren inguruan? Okerrera goaz... Gero eta

etika gutxiago dago eta prentsa sentsazionalista minbizia bezala hedatzen ari da... Udan Barajasen gertaturikoa azken adibide garbia dugu, zelan galdetu daiteke "zer sentitzen duzu?" semea galdu berri duen aita bati? Dena den, gauza onak ere badaude... ■

HALA BEDI IRRATIA ETA GASTEIZKO GAZTETXEA, TXORIONAK!

LIBRE ETA ZUTIK, DUINTASUN OSOZ

Urte berezia da aurtengoa gasteiztarrentzat. Izan ere, bi urtemuga garrantzitsu ospatzeko urtea da 2008a: Hala Bedi irrati librea 25 urte bete ditu, eta Gasteizko Gaztetxeak, 20. Urteurren borobilak biak, duda barik. Herri mugimenduen autogestioaren eredu diren bi egitasmo zoriontzeko urtea dugu aurtengoa. Hastapen zailetatik bidea eginez osasuntsu eta indartsu dauden Gasteizko bi proiektu zoriontzeko urtea. Urriaren 11n izango da ospakizunetarako egun berezia, urtemugak gogoratzeko Piztu Gasteiz eguna egingo baita gure hirian.



t.edurne begiristain
a. artxibo

Bestelako garaiak ziren. Eredu autoritario eta hierarkikoetatik at ezer gutxi egiteko aukera zegoen garaiak ziren. Baina 1980ko hamarkadaren hasierako Gasteiz hura, *apaiz eta militarren* hiri hura, aldatzeko prest zegoen jendea bazen gure hirian. Eredu kontserbadorea probokatzeko prest zeuden lagun askok urratsa egin zuten, eta Hala Bedi irrati librea uhinetan jarri zuten aurrena, eta muinoko etxea, Gaztetxea, zabaldu zuten bost urte geroago. Aro berria hasi zen gure hirian. Gasteiz alternatiboa jaio zen.

geugaia



UHINGASKEAK...

1983ko abuztuaren 5ean, Andre Maria Zuriko jaien festa giroan murgilduta, ekin zion Hala Bedi irratiak lehendabiziko saioak eskaintzeari. Herri mugimendueta-ko hainbat talde elkartu, eta euren grina eta nahiak hedatzeko premia zegoela ikusita, irrati berria sortzea beharrezkoa zela pentsatu zuten. Orduan martxan ziren komunikabideek ez zituzten euren borroken eta lanen berri zabaltzeko asmorik, eta

horregatik erabaki zuten euren baliabide propioekin egoera hori gainditzea. Antolaketa horizontal eta autogestionatu batean oinarrituta ekin zion lanari Hala Bedik, gizarte mugimenduen ildoei eutsita; hain justu ere, euren ahotza ematea zen irratiaren oinarria. Mende laurdena igaro denean ere, irizpide berberei eusten die irrati libreak, pil-pilean dauden gizarte gaiei lekua eginez, eta gizarte eragileek

euren ideiak plazaratzeko bitarteko lana gauzatuz.

Hastapenak ez ziren errazak izan. Bidegurutze zailari aurre egin behar izan zioten Hala Bedi irratiko sortzaileek: debekuak, itxierak, oztopo ekonomikoak, poliziaren jazarpena,... Arazo eta trabak zirenak, baina, erronka berriak bilakatzea lortu zuten. Zailtasunei irudimenaekin eta militantziarekin aurre egitea erdietsi zuten

Hala Bedik. Gainera, hasiera-hasieratik herritarren babesa izan zuen irrati libreak. Bidegabekeriak salatzen zuten tresna izateak eragin zuen jendearen harrera ezin hobea izatea.

Hasiera batean, irratiaren euskal rock erradikalaren eragina nabarmena bazen ere, denborak aurrera joan ahala, eraldaketa ere etorri zen irrati librerari. Irratiko entzuleak punky bako bako gehiago zire-



la jakitun, programak egite-
rakoan gehingoarengana
iristen saiatu ziren Hala
Bedin, ahalik eta irratia abera-
tsena eginez.

Filosofia berberari jarraituta
egin du orain arteko ibilbi-
dea Arabako irratia libreenak.
Ibilbide oparoa, gainera.
Gaur egun 100 lagun inguru
aritzen dira irratia dituen
30 irratsaio desberdinetan,
euskaraz eta gazteleraz
egindako programazio abe-

ratsa eguneko 24 ordutan
eskainiz. Musika saio ez
komertzialak, nazioarteko
gaiak, literatura, historia,
kultura, egunerokotasunare-
kin lotutako gaiak... horrek
denak eta askoz gehiagok
du kabida Hala Bedin.
Programazio erdia baino
gehiago euskara hutsezkoa
da. Gainera, Arrosa sareko
kide izateak samurtu egiten
die euskararen normalkuntza
bidean lan egitea.

Afizioz aritzen dira Hala
Bedin lan egiten duten ia
gehienak. Borondatezko
lanean oinarritzen da Hala
Bediko jarduera, ordaintzen
ez den eskulana hobere-
dela sinetsita baitaude.
Komunean duten gauza
bakarra komunikatzeko grina
da, besterik ez. Halabelarriak
izeneko bazkideei zor die
Hala Bedik biziraupena bera.
Haiek baitira irratia libreen
bizkarrezurra, diru sarreren
%80 inguru euren esku bai-

tago. Bazkideen laguntza
ezinbestekoaz gainera, diru
sarrera alternatiboak ere bila-
tu dituzte: kontzertuak,
txosnak, zozketak, edota
Alde Zaharrean duten taber-
naren bidez. Baina argi dute
baliabide ekonomikoak ez
dituztela iragarki komertzia-
letatik bilatuko, horrek irratia
librearen izaera galtzea eka-
rriko lukeelako.



... ETA GUZTION ETXEA

1988ko Prudentzio Deunaren egunean jaio zen Gasteizko Gaztetxea. Apezpikuaren lorazainaren etxea izandakoari ostikada bat emanaz jaio zen. Egun horretan 250 lagun inguruk Fariña plazatik manifestazioa abiatu eta gaur egun Gasteizko Gaztetxea dena okupatu zuten. Gaztetxearen sorrera, orduan Gasteizen zegoen gizarte mugimendu aberatsak biltzeko zuten premiaren isla izan zen. Okupazioa burutu baino lehenago,

Zapatari kaleko tabernetan biltzen ziren gazteak, eta garai hartan Euskal Herri osoan jaiotzen ari ziren gaztetxeen eredu aintzat hartuta erabaki zuten okupazioa burutzea. Ez zen prozesu erraza izan, ordea. Luze jo zuten kontuak, lan asko eskatzen baitzuen: asanbladak, interesa zuten jendea erakartzea, lokalaren aukeraketa,... Gasteizko Gaztetxearen lehenbiziko urte eta erdian ekimen ugari burutu ziren: kontzertuak, erakuske-

tak, hitzaldiak... Baina bolarak txarrak ere izan ziren hasierako urte horietan. Orduan Euskal Herri osoan larria zen heroinaren arazo gazteriaren artean. Gaztetxeko asanbladetan heroinaren trafikoari eta kontsumoari buruzko eztabaidak piztu ziren, eta arazo horri aurre egitea erabaki zuten. Alde Zaharreko Drogen Trafikoaren Aurkako Koordinakundearekin batera lan nekeza egin zuten Gaztetxeak, trafikante askoren mehatxupean. Orduz

geroztik, Gaztetxeari begi onez begiratzen hasi zen jende asko, bertako kideak ekintza horien bultzatzaile bakarrenetarikoak izan baitziren.

Hastapenetan Gaztetxeko kideen artean zegoen giro ona, baina, trakestu egin zen ostean, asanbladetan ikuspuntu kontrajarriak agertzen hasi baitziren: etxe okupatua ala kolektiboentzako lokala, atxikimendu politikoaren araberrako banaketak, lan intelek-



tuala eta eskulanaren arteko tirabirak.... Azkenik, zatiketa sortu zen, eta hainbat lagunek Gaztetxetik alde egitea erabaki zuten. Urteekin egoera baretzea lortuta, hainbat lagun bueltatu egin ziren muinoko etxera, eta elkarlanaren bidez aurrera atera zuten Gaztetxea. Garai horretan Udalarekin hainbat kontaktu izan zituzten, Udalak Gaztetxearen eraikinarekin zituen asmoei buruz hitz egiteko. Gaztetxea dagoen tokian aparkaleku bat eraiki nahi zuten,

eta horretarako etxea bota. Hainbat elkarrizketa eta negoziazioen ostean, baina, Udalak ez zuen gisa horretako erabakirik hartu.

1994. urte inguruan belau-naldi berria sartu zen Gasteizko Gaztetxean, eta eguneroko dinamika ahaztu gabe, beste arlo batzuk jorratzeari ekin zioten. Besteak beste, euskal presoen borrokak garrantzi handia hartu zuen garai horretan, eta ekimen ugari burutu zituzten auzi horren inguru-

an. 1998tik aurrera, berriz, batik bat gazteriaren arazotatik oinarritu zen Gazte Asanbladaren lana. Eta azken urteotan, bi arlo nagusitan banatu dute lana: batetik, etxearen mantenu lana eta bestetik, lan sozio-politiko eta kulturala. Hori bai, orain arteko ibilbide guztian itxieraren beldurra gain-gainean izan dute gaztetxeok. Hasieran, elizak jartzen zizkien trabak, berea baitzen eraikina, baina orain Udalaren esku dago jabegoa eta baita mehatxua ere.

Hogei urte igaro dira Gaztetxea ireki zenetik, eta gauza asko aldatu dira orduz geroztik. Gazteen ardurak, pentsamoldeak eta ekiteko moduak, esaterako, ez dira berberak. Haatik, hasierako oinarriei ez diete uko egiten: okupazioa, autogestioa eta asanbladaren ezinbestekotasuna zutabe baitute. Horrela, hamarkada hauetan muinoko etxea hiriko herri mugimenduentzako tresna eta erreferentzia bilakatu da ■

URRIAREN 11n PIZTU GASTEIZ

Hala Bedi irratia eta Gasteizko Gaztetxearen urtemugek ospakizun erraldoia merezi dutelako, Piztu Gasteiz jaia antolatu dute urriaren 11n Gasteizen. Festa eta errebindikazioa uztartzeko eguna izango da. Egun osoan ekitaldi mordoak prestatu dituzte Gasteizko Alde Zaharrean, Hala Bedi eta Gasteizko Gaztetxeak egindako lana omentzeko. Gorka Elgoibar irratia librearen eta Gaztetxearen kideak azaldu digunetz, Piztu Gasteiz egunarekin Gasteizko bi egitasmo alternatiboak inoiz baino osasuntsuago daudela islatu nahi dute. "Indartsu gaude, eta harro gaude egindako lanaz. 25 eta 20 urte daramatzagu lanean, jo eta su, eta hori ospatu nahi dugu". Azpimarratu duenez, egun osoko jaiarekin gogoratu nahi dute Hala Bedi irratia eta Gasteizko Gaztetxea herri mugimenduen tresna izan direla hasieratik. Bi egitasmoak hasieratik elkarri lotuta egon direla, eta elkarlanean funtzionatu dutela ere nabarmendu du Elgoibarrek.

Urriaren 11ko jaia erraldoia izango da. Gune desberdinetan banatuta egongo da Alde Zaharra: Umeena, komunikazioarena, musikarena, Gaztetxearena, herri mugimenduen eta auzolanena. Gune horietan tailerrak, hitzaldiak, kale animazioak, antzerkiak, kontzertuak, eta beste hainbat sorpresa izango dira egun osoan.

egitaraua: www.txorionak.org



eguneko
menua



GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA



**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

dalvez




info@dalvez.com

lazkarprint
Imprenta / Inprimategia



Landazuri, 7 - 945 23 30 01
GASTEIZ

♦ INPRIMATEGIA ♦

DJBUtec

Papertegi teknikoa

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Eramun
Argazki - Estudio



Heradio Fournier, 23
(laborategia) 945 13 71 02
Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA
on egin!!! jatetxea

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"




Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkaturia - Zaldiaran plaza GASTEIZ

El Clarete
jatetxea



unai eta patxi fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874



KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

KONTSULTA

Hilabeteak igaro dira kontsulta gora eta kontsulta bera eta momentu honetan Estrasburgora begira gaude. Istorioak badauka mamia. Espainiako Gobernuarekin akordiorik lortu ezean, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 27an onartu zuen Galdeketa Legea. Ondorioz, Madrilgo Gobernuak Auzitegi Konstituzionalaren eskuetan utzi zuen auzia eta honek debekuarekin eman nahi izan zion amaiera gaiari.

Konstituzionalaren aburuz, kontsulta Espainiako Konstituzioaren aurkakoa zen. Auzitegiak gaineratu zuenez, Eusko Jaurlaritzaren proposamena erreferendum bat zen eta erreferendumak deitzeko eskubidea Espainiako estatuak baino ez dauka. Ibarretxe lehendakariak luma eskuan, istorioa idazten jarraitu, eta Espainiako Gobernuak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren salatzeke deia egin zuen. Amaiera zein izango ote den zain, kalean iritziak honakoak dira.

t./a. ane pedruzo

ZER DERITZOKU KONTSULTARI?



Patxi Meabe, 49 urte, soinu teknikaria

Derrigorrezkoa dela uste dut, herriari egindako edozein kontsulta oso demokratikoa delako. Politikariek saltzen duten mezuaren arabera, herriak du hitza baina gero praktikoki ez da egia. Horregatik, lehendakariaren proposamena oso positiboa dela iruditzen zait.

Espainiako politikariek sekulako ahaleginak egin dituzte kontsulta debekatzeko, baita lortu ere, eta hori euskaldunok baiezkoa eman dezagun beldur direlako da.



Koro Telletxea, 23 urte, Botikaria

Alde batetik ondo deritzot horrelako galderak egiteari, biztanleriaren iritzia jasotzea bada xedea. Halere, oso proposamen utopikoa iruditu zitzaidan hasieratik, praktikoki ez baita inoiz baliagarria izango. Hauteskunderi begira abian jarritako estrategia bat dela uste dut.



Borja Rodriguez, 24 urte, langilea

Euskal hiritarrok dugun eskubide bat da, izan nahi duguna aukeratu dezagun. Dena den, estrategia politikoa ere bada zentzu batean, izan ere, Ibarretxek bazekien, edo suposa zezakeen kontsulta debekatuko zutela. Kontsultaren aldeko jarrerakin jarraituz datozen hauteskunderetan hainbat bozka irabaziko dituela badaki. Biktima izatera pasa da bere estrategia politikoaren laguntzaz.

idazleen zutabea

GASTEIZTXO

t. patxi zubizarreta

Gure hiri domestiko honetan ibilbide turistikoa egiten duen trenaren erredikulu maila gorabehera, beti imajinatu nahi izan dut bidaiariek zer ikusten duten eta, batez ere, zer ez duten ikusten, zer ez duten entzuten.

Lehenik eta behin, irudipena dut Gasteiz hiri gaztelaniaduna irudituko zaiela, hiriaren paisaia linguistikoa nekez pentsaraziko diela hemen bi hizkuntza direla ofizial. Denda eta tabernen kartelak gaztelania hutsean ikusirik, bisitaria ezin jabetuko da hiritarron sentsibilitate linguistikoa -jarrera, oro har- apaldu egin dela urteen poderioz, epeldu, eta euskara gaur egun ilusioarekin ez, baina profilekin eta tituluarekin lotzen dela (oraingoz, bestalde, ezin ikusi udalak sortu asmo duen kafe antzoki beharrezko hori). Bidaian aurrera, bidaiariak ez du entzuterik izango parkeetan guraso eta haurren artean gero eta gehiago egiten den euskara (bai miresgarria hiritar askok azken urteotan euskalduntzeko egindako ahalegin isil eta intimoegia). Bidaiariarentzat kontraesan hutsal ikusezin eta entzungaitzak dira hauek, gogo-sabelak beterik, bertan goxo, bertan gris dagoen hiria baita gurea.

Tranbiarako ipintzen ari diren errailen artetik doa Gasteiztxo anakronikoa, eta Marianisten ikastetxera iristean, bidaiariari jakinaraziko diote Iñaki Urdangarinek bertan ikasi zuela, baina ez du jakiterik izango Ignacio Aldecoa idazleak askoz lehenago ikasi zuela bertan. Edo hirian badela euskaraz sortzen duen idazle multzo, edota euskarazko liburuak hizpide dituen irakurle klub bat.

Bidaia amaiturik, bidaiari asebetek Gasteiztxotik pozarren jaitsi, eta Plaza Berrira joko du. *Baztertxo* tabernako terrazan eseriko da akaso, baina ezin jakin han *Herrikoia* liburudenda egon zela luzaroan -gari hauen sinbolo sintomatikoa: liburudenda-taberna... Irudipena dut gutako askok desio ez dugun hiri domestikoa ikusi duela bidaiariak, eta gu geu ere ohitu egin garela hiri arrotz, kanpoeder eta pitxiplastikozko hau ikustera ■





ESKOZIARRA DA (ETA HARRO DAGO)

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GONTZAL AGOTE

BERE DEITURAK SALATZEN DUEN BEZALA, JAMES MCAVOY ESKOZIARRA DA; ESKOZIAR PETOA DA, SEAN CONNERY ABERTZALE SUTSUAREN KASTAKOA. 1979AN GLASGOWEN JAIOA, GOGOR LAN EGIN DU DAGOEN TOKIRA AILEGATZEKO. ETA LORPEN HANDIAK EGIN DITU: HILABETE HONETAN, ANGELINA JOLIEREN BESOETAN IKUSIKO DUGU *WANTED* FILMEAN.

Sorterrian, antzerkigintzan eta te-
lebistan eman zituen lehen urra-
tsak McAvoy gazteak. Hainbat te-
lesailetan parte hartu zuen, horien
arteak, Steven Spielbergekek eta
Tom Hanksek ekoiztitako *Band of
brothers* ezagunean. Telesail ho-
rietan ikasi zuen mutiko despista-
tuaren aurpegia jartzen, eta horri
esker pantaila handirako hainbat
lan txiki egin ostean, 2005ean
protagonista lanetan aritzeko au-
kera ailegatu zitzaion: *Rory
O'Shea was there* film britainiarre-
an izan zen.

Baina, jakina denez, zinema mun-
duan "ezagun" izateko Hollywoo-
den lan egin behar da. Eta halaxe

egin zuen McAvoyk, 2005 urtean
bertan. Bigarren mailako rol bat
egitea egokitu zitzaion aurrekontu
handiko ekoizpen batean, *The Ch-
ronicles of Narnia* sortaren lehen
atalean. Tumnus faunoarena egin
zuen aktore eskoziarrak. Nahikoa
eta sobera izan zen hamaika begi-
rada erakartzeko.

Dena den, bultzadarik handiena
aktore handi baten itzalpean lortu
zuen, pelikula britainiar batean
berriro ere: Kevin Macdonald zu-
zendariaren *The last king of Sco-
tland*. Forest Whitaker-en neurrira
egindako filma zen, eta hain ju-
tu, aktore onenaren Oscar saria
irabazi zuen aktore begiokerrak.



Haren alboan McAvoy zegoen, eta
film hartan, argi utzi zuen bera ez
dela ingelesa, eskoziarra baizik.
Film horri esker, McAvoy aktore
gazteen lehen mailara pasatu zen,
sex-symbol berria bihurtuta. eta
iaz, bi aktore ezin erakargarriago-
ren ondoan aritu zen, Anne Hath-
away (*Becoming Jane*) eta Keira

Knightsley (*Atonement*). Aurten,
McAvoy bete-betean sartu da Hol-
lywoodeko zirkuan: Angelina Jo-
lierekin batera, *Wanted* akzio-fil-
mean ikusteko aukera dugu. Peli-
kula kaskarra izanen da, baina se-
guru ate berriak irekiko dizkiola
Glasgow Celtic taldeko jarraitzaile
sutsu honi.



HERMAN MONSTER-EN KREDITU-TXARTELA

Monster familia gure kuttunetako bat da, eta horrexegatik, zur eta lur utzi gaitu Herman Monster-en kreditu txartelari buruzko albisteak. Dirudienez, kreditu-txartelen datuak internetez saltzen dituzten iruzurgileak dabilta, eta horietako bat, Herman Monster-en datuak saltzen saiatu da duela gutxi. Iruzurgile horrek nondik atera zituen Herman-en datuak? Nonbait, telesailaren jarraitzaile batek ziria sartu zion, datuak asmatu eta interneten jarri baitzituen, Monster familiaren helbide eta guzti. Herman... batzuk kasotik eginda zaudek!

HORI DESODORANTE ERAGINKORRA!

Alemaniko Buesum herriko gazteen-tzako aterpean boladatxo bat pasatzen ari ziren emakume batzuek zenbait desodoranteren "eraginkortasunaren" proba grafiko ederra eman digute. Antza, desodoranteetako gasek komune-ko sabaia zeharkatu zuten, eta suteen kontrako alarmak jo zezan eragin zuen horrek. Polizia buruak esan duenez, ondorioak ikusita, pasadizoaren protagonistek desodorantearen erabilera murriztea espero dute orain.



KLAXONIK GABE SHANGAIN



Shanghai erdialdeko gidariek adimena zorroztu beharko dute. Aurrerantzean, larrialdi kasuetan ezik, erabat debekatuta egongo da klaxona jotzea, Klaxona oso tresna baliotsua zen Shangaiko trafiko zurrunbiloan aurrera egin ahal izateko, eta orain, gidariek bestelako teknikak asmatu beharko dituzte. Arrakastatsuena, "kontuz, biratzera noa" eta antzeko esaldiak errepikatzen dituen grabazioa izan da, baina poliziak jakinarazi duenez, hori ere legez kanpoko da. Asmatzen jarraitu beharko!

Shanghai erdialdeko gidariek adimena zorroztu beharko dute. Aurrerantzean, larrialdi kasuetan ezik, erabat debekatuta egongo da klaxona jotzea, Klaxona oso tresna baliotsua zen Shangaiko trafiko zurrunbiloan aurrera egin ahal izateko, eta orain, gidariek bestelako teknikak asmatu beharko dituzte. Arrakastatsuena, "kontuz, biratzera noa" eta antzeko esaldiak errepikatzen dituen grabazioa izan da, baina poliziak jakinarazi duenez, hori ere legez kanpoko da. Asmatzen jarraitu beharko!

**gaztezulo flash zure e-mailean
doan jaso nahi duzu?**

**Hamabostean behin
informazioa eskura**

Bidali e-maila eta zure izen-abizenak gaztezulo@gaztezulo.com helbidera

15/1999 lege organikoaren arabera, harpidetuak gaztezulo-ri emandako datuak: Datuen Babeserako Agentzian inskribaturik dagoen fitxategi automatizatu batera igaroko dira, datuen kudeaketa hobea bermatzeko eta harpidetuak gaztezulo-ren jarduerara eta zerbitzuei buruzko informazioa jaso dezan. Datu lagatzeak, erabiltze-irango eta sarbide, zuzenketa, ezeztatzen eta aurkaritza eskubidea, arauak ezartzen duenari jarraituz, Katalina Eizzegi 36, behe, 2009 Donostia helbidean, Hota helbide elektronikoa: harpidetza@gaztezulo.com



Miradas de cristal


José Luis Manzanedo, *Patxo*

BAŞARAI

Jose Luis Manzanedo, *Patxo*:

**“Gustatzen ez zaigun
errealitatearen aurrean
begiak ixten ditugu”**

Zerk bereizten ditu leihoa eta ispilua? Biak dira beira, baina beiraren atzean zilarra jartzen dugunean lortzen dugu ispilu bihurtzea. Orduan, gu gara bertan islatzen garen bakarrak, dagoeneko ez dugu besterik ikusten. Patxoren kamerak hartutako argazkietan agertzen diren umeez ez dute zilarrik, ez urik, ezta janaririk ere. Txirotasunaren ispilu dira; injustiziaren berri ematen diguten begi distiratsuak.



t. naroa cuesta a. edorta sanz

Bidaiatzea da Jose Luis Manzanedok (Barakaldo, 1961) denbora eta dirua inbertitzeko ezagutzen duen modurik onena. "Bestelako errealitateek gurea erlatibizatzen laguntzen digute; ez baikara munduaren zilbor". Munduan zehar milaka istorio entzun, sentitu eta enkostratu ditu. Argazki kamera Patxoren besoaren luzapena da, zintzotasunez erabiltzen du, oldarkortasunik gabe. Umeen konfiantza erraz irabazten du, pailazo sudurraz lagunduta.

Umeen istorioak, euren bizitokien errealitateak, mundu globalizatuaren gabeziak, injustizia... Haien begiradetatik abiatuta gure leihoaren bestaldean dagoen munduaren berri ematen digu 'Miradas de cristal' liburuak; zilarrez horniturik gabeko errealitatea.

Kazetari, idazle, artista eta norbanako ugari izan ditu bidaia honetan lagun. Argazkia eta sarreratxoa eskaini eta bakoitzak, buruari era-

gin ostean, sortutakoa bildu Manzanedok. Urtebete luzeko lanak merezi izan du, ziurdago horretaz. Unicef-en proiektu honen adierazle den liburu Bassarai editorialarekin argitaratu du Jose Luis Manzanedok.

Kazetaria da Patxo. RNEan lanean hasi zen 1985ean eta ordutik Gasteizen bizi da, mundu garatuan, alegia. Aitor eta Ane ditu seme-alabak, Euskal Herrian jaio izanaren zor-teaz jabe daitezen saiatuko da aita. Liburu honen helburuetako bat izan daiteke hori. Baina beste asko ere baditu... Azken finean, argazkietan agertzen diren umei aukera bat ematea; egungo mundua aldatzea.

- Bestelako mundua posible al da?

Baietz uste dut, hala ere, lortzea zaila izango da. Beste gauza askoren artean, diru asko dutenek ez dutelako gutxi dutenengan pentsatzen. Munduko biztanleen seirena txiroa da, eta dirua dutenak %10 baino ez dira. Politikarien aurretik doa gizartea, eta erakunde zibilak eta norbanakoak dira gehien mugitzen direnak bestelako mundu hori posible izan dadin.

- Gaur egungo umeek ekar dezakete aldaketa?

Bidaiatu ostean, egoera edonon errepikatzen dela ikusi ostean... ez dut itxaropen handirik. Janari eskasia, ur edangarriaren eza, txirotasuna... edonon aurki daiteke. Egun bizi dugun krisi globalak eragina du gudan: petrolio falta. Baina beste hainbat lekutan eguneroko bi janak bakarrera murriztu dituzte... Hurrengo belaunaldiak egoera aldatzea gustatuko litzaidake, oster, ez dut uste lortuko dutenik.

- Berrogeita hamar herri baino gehiago, hogeita mila argazki... Noiz eta non jaio zen 'Miradas de cristal' proiektua?

Nire buruan 2006 urtean. Argazki erakusketa bat prestatu nuen Luis de Ajuria aretoan. Ugaria zen orduan nuen materiala, eta zerbait

gehiago kontatu beharrene grina sentituen. Aldiz, "jende askok daki nik bezainbeste gai honetaz", pentsatu nuen, eta orduan... ezetz esan ezin zezaketenei eskaini nizkien lehenengo argazkiak. Unicef-i eskaini nion proiektua, baietza lortu ostean kolaborazioak lortzera abiatu nintzen. Horrela, proiektu honi hasiera eman zion deia 2006ko azaroaren 20an egin nuen, Umeen Eskubideen Nazioarteko Eguna, alegia. Aurtengo ekainean bihurtu da errealitate 'Miradas de cristal'. Deitu egin ditudan ate gehienak ireki dizkidate.

- Begirada batek begiak irekiarazi lie-zazkiguke?

Izan daiteke, baina hala ere, zentzu horretan ez naiz batere baikorra. Bestelako mundua nahiko nuke, baina ez dut uste bihar helduko denik. Kontziente naizenetik gauzak ez dira batere aldatu. Gatazkek enbarazu egiten dutela dirudi. Albistegietan bi gatazkek jasanezinak dirudite. Soilik ikusten dugu (edo ikusi nahi dugu) aurrean jartzen digutena. Gustatzen ez zaigun errealitatearen aurrean begiak ixten ditugu.

- Zure seme-alabek nola ikusiko dituzte 'Miradas de Cristal' liburuan biltzen diren argazkiak?

Bost urteko alaba eta bi urteko semea daukat. Ale bana gorde diet, eta momentua helden denean saiatuko naiz bertan dagoena uler dezaten. Bizi eta ezagutu dudan errealitatea kontatuko diet orduan. Mundu garatu honetan jaio izanak zer dakarren uler dezaten.

- Argazkietan agertzen diren umeak inuzenteak izango al dira oraindik?

Baten bat ez da gaur bizirik egongo, hori da tristeena. Liburu honetan agertzen diren ume batzuk seropositiboak ziren argazkia atera nuenean. Inuzenteak izango dira, agian, baina ez leloak. Ume horien begiradetan aukera anitz ikusten da. Akaso, denak galduko dituzte ■



Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

**Euskara,
gure lurralde
libre bakarra**

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631

PARRAL
TABERNA

Equerditan, astelehenetik ostiralera

**JANTOKI
BEGETARIANO**

SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL - 945 27 68 33

ZURE HARATEGIAK

AIZPEOLEA
harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

**Jose Luis
GARMENDIA**
Harategia-urdaitegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

25 ARTEPAN
1983-2008 Victoria - Gasteiz

Jesus Guridi, 2
TI. 945 27 88 88 - 28 72 37
El Boulevard Merkatal Zentroa - TI.
945 068 888
01005 GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay kalea, 9 - TI: 945 24 49 65
Abendaño kalea, 48 - TI: 945 22 34 33

**Euskadik
behar zaitu**

**EAJ
PNV**

**ERROTA
HORTZ KLINIKA**

Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

**bar . restaurante .
albéniz**

Errege atea, 9 - GASTEIZ
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK · LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2
TI: 945 13 27 20

*Confeciones
Pinedo*

Jantziak
San Antonio, 11 · TI. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 · TI. 945 15 53 39

HEGOALDE
euskaltegia

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

KAIET ESTRADA
ORHUM
ZINE KLUBA



Edozein zine klubek izan ditzakeen helburu berdinekin sortu zen Gasteizko Orhum Zine Kluba. Gasteizko Unibertsitatean jaio zen, zinema maite zuen talde batek bultzatuta. Jendeari zeuden filmak erakutsi eta horretaz hitz egiteko grina zuen taldeak eraginda jaio zen. Gaur egun hiru ziklo antolatzen dituzte ikasturtean zehar, bi unibertsitatean eta bakarra euskaraz, Irudi Txokoa, GAUEKOAK programaren barruan.

FILMEN DIGITALIZAZIOA

Teknologia berriek, aukera berriak

Filmen digitalizazioak euskal zinemagintzan izan dezakeen eragina oso handia izan daiteke. Adituek aukera ezin hobea ikusten dute krisaldi egoera gaingintzeko.

Orain arte 35 milimetroekin lan egin da. "Zenbat eta kopia gehiago egin, orduan eta kalitate gutxiago 35 milimetroko formatuan", diosku Kaietek. Baina benetan formatu honetan lan egiteak dakarren oztopoa "kopia bakoitzak balio duen dirutza" da. Uste nagusiaren aurka, digitalizazioak ez du ekarriko kalitate hoberik, baina bai erosotasuna, praktikotasuna eta erabilgarritasuna. Honengatik guztiagatik eta 35 milimetroko kopiak egiteak dakarren prezio altuengatik egingo da aldaketa, azken finean. Kopietan beraz, aurreztea ekarriko du digitalizazioak, filmaketetan ere kostuak murriztuko direlarik. Aldaketa guztiek bezala, alde txarra ere badauka honek tamalez, "proiektionista guztiak kalera" doazela eta laborategi gehienak ixtera doazela. Alabaina, oso pozik agertzen da gure solaskidea, izan ere, euskarazko zinemagintzarako aukera izango baita honakoa. "Euskal Herriko hainbat herritan proiektore digitala ipini liteke eta une berean film bera ikusteko aukera legoke". Areto kulturalentzat oso positiboa izango da aldaketa, film

t. ainhua arriaga

a. edorta sanz

Urteen joan-etorrian, euskaraz dagoen zinemagintzari dagokionean, Gasteizko erreferente nagusi bilakatu da Orhum Zine kluba eta Kaiet Estrada, Gasteizko kulturgintzan ezaguna, egun klubean dagoen kiderik aktiboena. Proiektionista ofizioz eta afizioz, zine klubean zazpi urte eramateak dakarren eskarmentua berehala igartzzen zaio. Horregatik, berarekin bildu gara euskarazko zinemagintzaren panoramaz hausnarketa egin ahal izateko.

Ikerketa-lana, abiapuntua

Euskarara itzulita dauden filmen zerrenda erakusten digu Kaietek koadernotxo batean pilatuta. Urteak eman ditu, kasualitatez eta euskarazko zikloak antolatzekeo premiazko informazioa biltzeko asmoz hasitako egitasmoan lanean. "Hasi nintzenez konturatu nintzen material hau ez zegoela inon jasota eta ganorazko zerbait egitea bururatu zitzaidan". Euskaraz bikoiztuta dauden filmak jasozten ditu landa-lanak, eta horietatik DVD formatuan ere euskaraz atera direnak. "Jada euskaratuta zeuden 250 bat film geratu dira DVD euskarazko bertsioan atera barik... Azkar esaten da", azaltzen digu. Bere ustetan ETBk omen du honetan erantzukizun handia: "ETBk ez die banatzaileei bikoizketa eman nahi edota garestiegi saldu egiten die", komentatzen du haserre.



Gaur egungo panorama, ezin latzagoa

Gaur egun, zinemagintzari dagokionean erabilgarri dagoen euskarazko materiala oso eskasa da. "Dauden filmen artean, gehienak umeentzako egindako filmak dira, urte asko dituztenak eta eskoletan hamaika bider jarri izan dituztenak". Bikoiztutako filmez ari gara, izan ere, euskaraz ekoizturiko film luzeei erreparatzen badiegu, esku batekin zenbatu daitezkeela konturatzen gara: Aupa Etxebeste; Kutsidazu Bidea, Ixabel; eta Eutsi.

Gaur egun 4 estudio daude euskaraz bikoizteko gai direnak eta Kaietek azaltzen digunez, asko jota 40 pertsonako ahots lan-taldea du estudio bakoitzak. Langileek ez dute izaten estudio bakoitzarekin esklusibitate hitzarmenik eta horretaz gain, bikoizle batzuek gaztelarazko bikoizketak ere egin ohi dituzte. Nola ez zaigu ba ezagun egingo Doraemonen ahotsa? Gainerako lanbideetan bezala, oso kontutan hartzekoa da langileen lan egoera. Eskatzeko eman egin behar baita. Zilegizkoa da bikoizketetan hizkuntza egokia, naturaltasuna, ondo antzeztutakoa izatea eta abar eskatzea. Baina zilegizkoa ere bada, lan egoera duina eskatzea euren lana ondo egin ahal dezaten. Nor da orduan arazo hauen guztien erantzule? Beti gertatzen den antzera, erruduna ez da bakarria, baina, Kaietek argi dauka, ETBk dirutza guztiak eramateak behintzat ez duela egoera samurtzen.

gehiago izango dituzte aukeran eta gainera, digitalizazioak eskaintzen dituen ezaugarriez jokatzeo aukera egongo da: bikoiztutako filma, jatorrizkoa baina azpitoluluekin... eta guztia soilik botoi bat sakatuta.

Aukerez baliatzeko garaia: Gasteizko Kafe Antzokia

Gaur egun, urtean 16 bat euskarazko film badiugu, digitalizazioak ekarriko duen kopien aurreztearekin urtean 50 film izatera eraman gaitzake. Baina, zertarako nahi ditugu hainbeste film non ipintzerik ez badauzkagu? Gasteizko Kafe Antzokia ikusten du Kaietek film hauek guztiak eskaintzeko gune egokia. Aspaldi dago mahai gainean Gasteizko Kafe Antzokia sortzeko ideia. Eta dirudienez, aurrera doan proiektua dugu. Aukera hiriko Kafe Antzoki berrian zine

digitala sartzean legoke. Europa osoan barrena 350 proiektore digital daude funtzionatzen, eta "Gasteizko Kafe Antzokiak 351.a behar luke izan".


Orhum Zine klubeko kidearen ustez, bi areto izan beharko lituzke behintzat Kafe Antzokiak, bat txikiagoa, eta bietan zinea jartzeko aukera egon beharko litzateke. Horrek programazioarekin jolasteko aukera emango luke. Kontzertuak, antzerkia, zinea, bata helduentzat bestea gazteentzat...

"Dauden kafe antzokiak aztertu, euretatik ikasi eta hobetzea" proposatzen du. Euskara txoko guztietan egotea oso garrantzitsua da, transbertsalitatean landu beharrekoa baita. Baina horretaz gain, "euskara hutsezkoa izango den gunea beharrezkoa da, euskara zentralizatuta egongo den leku bat, jendea euskarazko kultur ekintzez goatzera hurbilduko dena", deritzo.

IRUDI TXOKOA **Euskarazko irudien txokoa**

Orhum zine klubak, GAUEKOAKen programaren barruan IRUDI TXOKOA zine zikloa antolatzen du urtero. Ekintza jarrai gisa antolatzen da, ostiraletan ordu berean eta leku berean, hilabete eta erdiko iraupenez. Datorren hiruhilekoan, euskarazko sei film ikusteko aukera izango dugu.

Kaietek azaltzen digun bezala "kasualitatez izan zen" Irudi Txokoaren sorrera. Izan ere, GAUEKOAKekin elkarlanean hasi zirenean gaztelerazko zikloa antolatzen zuten, baina funtzionatzen ez zuela ikusita, deigarria eta bereizgarria zena asmatu beharrean zeuden. Euskarazko eskaintzarik ez zegoenez, Irudi Txokoak funtzionatu zezakeela pentsatu zuten eta hala izan zen. "Gauzak zailak izango zirela aurreikusten genuen, baina sekula izan diren bezain zailak". Egia esan, erraza dela ematen du: bideoklubera joan, lokala topatu eta DVDa ipini. Baina lan handia dago horren atzetik. Hasteko materiala bilatu behar da, "jakiten, ikusten, sumatzen... dugun minimora ate-joka goaz". Eskubidea nork daukan jakitea oso garrantzitsua da, eta bestetik, filmaren egoera zein den jakin behar dute. Azkenik, banatzaileari filma eskatu behar diote. Banatzaile askoren gehiegikeriak salatzen ditu: "Euskarazko materiala izatean, diru aldetik asko pasatzen dira banatzaile batzuk". Oso harrera ona du gaur egun Irudi Txokoak, gizartearen behar bat asetzen baitu.



MAIDER GARCIA DE BIKUÑA

•SEXOLOGOA •GEUSEX ATALEKO KOLABORATZAILEA

“Ez al du merezi sexualitatea bere zabalera osoan eta modu pertsonalean gozatzea?”

Maidar Garcia de Bikuña sexologoa sei urte daramatza Emaize sexologia zentroan lanean. Ikastetxez ikastetxe ematen du bere jardunaren denbora handiena, ume eta gazteekin sexu heziketa egiten. Guraso eta irakasleekin ere egin ohi dute lan, Maiderrekin dionari jarraituz, “berauek baitira ume eta gazte hauen hezitzaile nagusiak”.



t. ainhoa arriaga
a. edorta sanz

Sexualitatearen gaia betidanik izan da bere intereskoa, nahiz eta hasiera batean ikasketak psikologia alorrera bideratu zituen.

“Unibertsitatera joan baino lehen karrera bezala ez zegoela esan zidaten eta psikologia egitea erabaki nuen, sexologia etorkizunerako utziz. Psikologia amaitzen ari nintzeanean Sexologia formakuntzarekin hasi nintzen”.

Zer dakar sexologoa izateak?

Guztiok sexudunak gara eta sexualitatea landu beharreko eremu aberatsa dela sinetsuta eta ideia horretan oinarrituz lan egitea. Bokaziozko lanbidea da.

Estereotipoak sekulan ez dira izaten gure ibilbide profesionalean lagun. Nola bizi izan dituzu zuk zure lanbideari estuki lotuta joan direnak? Zein zail-

tasun topatu dituzu bidean?

Gurekin zerikusia duen estereotipo nagusia, joko edo praktika erotikoen munduan makinan gabela pentsatzea da, gozatzeko truku guztiak dakizkigula... eta abar. Hori, noski, ez da egia eta gauza berri asko ikasteko eta gozatzeko ditugu.

Nire kasuan lanean izan dudana oztopo eta aldi berean abantaila nagusia, adina eta gazteago izatearen itxura izan da. Hasi nintzeanean gurasoen mesfidantza begiradak nabari izan nituen, hala ere laster konturatu ziren nire lana egiteko prestaturik nengoela. Lehenengo inpresioa besterik ez zen izan. Gazteekin, adina, itxura eta izaera hasieratik lagungarriak izan ditut, hurbila ikusten nauzelako.

Zer da zure lanetik gustukoena duzuna?

Oro har oso lan interesgarria dela uste dut, egunero ikasteko aukera ematen dit. Jendearekin aurrez aurre hitz egitea eta sexualitatearen ideia positiboa transmititzea

gustuko ditut. Ez soilik arriskueta indarra jarritz. Lehen hezkuntzako umeekin sexu-heziketa egitea ere, bereziki gogoko dut.

sedukzio jokoan ditugu arazo gehienak

Zeren bila hurbiltzen da jendea Emaize sexologia zentrorara?

Ikastetxeetan sexu-heziketa, gizarte eragileentzako formakuntza, komunikabideekin kolaborazioak, sexu-aholkularitza eta terapia sexologikoa egiten dugu Emaize-n, besteak beste, beraz arrazoi horienatik hurbiltzen zaigu jendea. Baterako zein besterako laguntza edota orientazio eske.

Askotan ematen du gazteek baino ez dituztela sexuari buruzko zalantza eta kezka. Baina seguruenik heldu asko ere hurbilduko zaizuela zentrorara. Zeintzuk izaten dira helduen ohiko kezka? Eta gazteenak?



emaize-ko lan-taldea

EMAIZE sexologia zentroa

1994 urtean sortu zen Emaize sexologia zentroa. Emaizeren hastapenak elkarte gisa izan ziren baina lanak gora egin zuenean enpresa bilakatu zen. Gasteizen du egoitza eta lau ardatz nagusik osatzen dute bere jarduna: Hezkuntza eta formakuntza, Aholkularitza, Ikerketa, eta 2003 urtean gehitu zitzaion Terapia arloa. 7 pertsonak osatutako lan-taldea du Emaizek, profesionalak guztiak, giza-zientzietan lizentziadunak eta sexologian goimailako formaziadunak direlarik. Norbanakoekin lan egiteaz gain, bikoteekin, familiekin, erakundeekin, elkarteekin eta komunikabideekin ere lan egiten dute.

Kontaktatzeko bideak:

945-265896

emaize@emaize.com

www.emaize.com

Bueno Monreal kalea 1

Guztiok gara sexudunak eta jaiotzatik hil arte, sexualitatearen inguruko interesak, zalantzak eta beharrak ditugu. Gehiegitan haur eta zaharren sexualitatea ukatu egiten dugu, baina hor dago, zalantza barik.

Terapiara datozen pertsona gehienak helduak dira, hirugarren adinekoak barne, eta kezka nagusia sexu-harremanetan dauzkaten arazoak ebaztea da: desio gutxi, orgasmo falta, isurketa goiztiarra, zakil tentetzerik ez, jeloskortasuna, bikote bizikidetzan arazoak, bikotekide berriekin harremanak izateko arazoak...

Gazteen ezbaian artean mamu asko ere badira. Hala ere, hauen kasuan "normaltasunaren" barruan daudela jakitearen beharra azaltzen da maiz: lehen koitoa zein adinarekin, zakilaren luzera zenbatekoa... Hainbeste datu estatistiko entzuten dituzte -helduek ere-, sexualitatean dena zenbatu behar dela ikasten dutela. Sexualitatea zenbakaitza da, bizi eta gozatzekoa da.

benetako sexu-heziketa ona eta luzaroan ongizatea ekarriko duena egin nahi badugu, gure jokaeren, sinesmenen, bidaltzen ditugun mezuen... inguruko hausnarketa egin beharko genuke

Daukazun esperientzian oinarrituz, nola bizi dugu gasteiztarrok sexualitatea gaur egun?

Euskaldunon fama zein den denok dakigu. Nire ustetan sedukzio jokoan ditugu arazo gehienak: hurbiltzerakoan hotzak gara eta batzuetan hain zuzenak, bestea beldurtu egiten zaigula. Hala ere, behin hurreratzea emanda, barruan dugun berotasuna ateratzen dugu eta gehienok gozaten badakigu, ezta?

Emetasun eta gizotasunaren rola sexuan inon baino gailenagoak direla esan ohi da. Ados zaude? Nola gainditu daiteke egoera hau?

Sexu rola gizartean gaizki bereziak daude oraindik ere eta ezin dugu sexualitatea aparte utzi. Dena den, aldaketak ere eman dira azken urteotan: emakumeok gozatzeko, ezetz edota baietz esateko, profesionalki hazteko, amatasuna erabakitzeko... eskubi-dea dugula ikasi dugu eta horrek gure jokatibideak aldatu dituen neurrian, gizonei aldatzea eskatu die, batzuek zeuden bezala jarraitu nahiago duten arren.

Heziera kontu bat dela argi daukat, beraz, umeek egunerokotasunean emakume zein gizonek erabakiak libre hartzen ditugula ikusi behar dute, askatasun hori dutela ikasi ahal izateko. Helduok gara etorkizuneko helduen gaurko eredu.

Gure kulturaren sexu-ereduek sexuaz osoki gozaten uzten ez digutela uste duzu?

Bai. Sexu-harremanez aritzean koitoaz, genitalaz eta orgasmoaz hitz egiten da. Hori guztiok eta edozein harremanetan desiratzen duguna bailitzan.

Non uzten ditugu gozatzeko egin ditzakegun bestelako joko erotiko guztiak? Non gorputz osoko sentiberatasuna? Non plazerara? Orgasmoak segundu batzuk irauten ditu, plazerari nahi diogun luzera eman ahal diogun bitartean. Ez al du merezi sexualitatea bere zabalera osoan eta modu pertsonalean gozatzea?

Familiak, irakasleek, lagunek, hedabideek,... hezten gaituzte eta dugu, finean. Baina ba al daude/gaude sexu-hezkuntzan hezteko prestaturik?

Denok, nahi eta nahi ez, hezi egiten dugu. Benetako sexu-heziketa ona eta luzaroan ongizatea ekarriko duena egin nahi badugu, gure jokaeren, sinesmenen, bidaltzen ditugun mezuen... inguruko hausnarketa egin beharko genuke. Hori egin eta gero has gaitzke beharrezkoak ikusten ditugun aldaketak egiten. Gure jokaerak aldatuz, egiten dugun sexu-heziketa aldatuz joango da eta gure ume eta gazteei sexualitatearekiko bizi-pen positiboa bermatuko diegu.



guztiok gara sexudunak eta jaiotzatik hil arte, sexualitatearen inguruko interesak, zalantzak eta beharrak ditugu

Teknologia berriek aldaketa nahikotxo ekarri dizkiote egungo gizarteari. Esaterako, Internet bidezko komunikazioak. Nola eragiten du Internetek sexu-heziketan?

Gaur egun edonork erabiltzen du Internet

informazioa lortzeko eta sexualitatea ez da salbuespena. Gazte askok Interneten bilatzen dute, helduei galdetzeko konfiantza faltagatik. Heldu askok berauen arazoei irtenbidea emateko informazioa bilatzen dute, "sexu arazoak" kontatzeak lotsa eta beldurra sorrazten dizkielako...

Noski, asko dira Interneten sexualitatearen inguruko informazioa bilatzen dutenak, zalantza xumeak, jakin-mina... asetzeko. Tresna bat da eta erabiltzeko dago ■

Exposiciones / Erakusketak

MONTEHERMOSO

19.09.08 – 01.02.09

OUR BODIES, OUR SELVES

Trisha Baga, Pauline Boudry & Renate Lorenz, Nao Bustamante, Celeste Dupuy-Spencer, Leah Gilliam, K8 Hardy & Wynne Greenwood, Marriage, Alex McQuilkin

CONTRASEÑAS Ciclo 5 / PASAHITZAK 5. zikloa / PASSWORDS Cycle 5

A. L. Steiner

26.09.08 – 04.01.09

RENDEZ-VOUS NOWHERE

Zbyněk Baladrán, Kajsa Dahlberg, João Maria Gusmão & Pedro Paiva, Marcellvs L., David Maljković, Eva Morant Artazkoz, Silke Otto-Knapp, Oscar Tuazon

26.09.08 – 11.01.09

ESA SUBSTANCIA QUE MANCHA

Juncal Ballestín

19.09.08 – 04.01.09

EUROPEAN COMMUNITIES

Immo Klink

17.10.08 – 07.12.08

VIVIENDO EN SESTAO SESTAON BIZIZ

Iñaki Izquierdo Muxika
PERISCOPIO 2008

proposamenak

cd

'etxea'

kepa junkera · kap produkzioak-08/iraila · www.kepajunkera.com



bere bilduma, musika-planteamendua, ekoizpena eta dotoreziagatik txundituko duen kd bikoitza eta bikaina izanik. tankera kuriosoaz penintsulako artistak, afrikarrak, argentinarrak eta brasildarrak hurreratzan dira euskal ohiko kantetara, abestiak beraienak eginaz eta bereganatuaz, kolore ezberdinak lortuaz. parte hartu duten gonbidatu gorenek, atsegina, kalitatea eta bakoitzaren ikuspuntua ekarpenaratu diote lan honi, miguel bosé, sole jimenez, carmen paris, michel camilo, chano dominguez, teresa salgueiro, ginesa ortega, pau donés, ... guztira 42 abeslari eta 15 musikarari izanik. lan berri honekin keparen helburua, gure kultura, gure mugetatik atzerriko landetara gerturatzea da.

liburua

euskalkiak. euskararen dialektoak'

koldo zuazo zelaieta · elkar-08/iraila · www.elkarlanean.com

euskalkia ez da errealitate estu eta zurruna: historiaren momentu batean sortu ziren euskararen barruko aldaerak, eta hizkera horiek aldatuz segitu dute geroztik, beste dialekto batzuetara hurbilduz edo haiengandik urrunduz, eta bere baitan ere gehiago berdinduz edo bereiziz. izaera dinamiko hori oso aintzat hartu du koldo zuazok euskalkien gaur egungo argazkia egitean.



zinea

www.sansebastianfestival.com

THE OTHER MAN, Richard Eyre (Britainia Handia); THE BROTHERS BLOOM, Rian Johnson (AEB); ARUITEMO, ARUITEMO / STILL WALKING, Hirokazu Kore-Eda (Japonia); ASBE DU-PA / TWO-LEGGED HORSE, Samira Makhmalbaf (Iran - Frantzia); LA BELLE PERSONNE, Christophe Honoré (Frantzia); BI MONG / DREAM, Kim Ki-duk (Hego Korea); CAMINO, Javier Fesser (Espainia); DEN DU FRYGTER / FEAR ME NOT, Kristian Levring (Danimarka); EID MILAD LAILA / LAILA'S BIRTHDAY, Rashid Masharawi (Tunisia - Palestina - Holanda); FROZEN RIVER, Courtney Hunt (AEB); GENOVA, Michael Winterbottom (Britainia Handia); LOUISE-MICHEL, Benoît Delépine, Gustave Kervern (Frantzia); MAMAN EST CHEZ LE COIFFEUR, Léa Pool (Kanada); EL NIDO VACÍO, Daniel Burman (Argentina - Espainia - Frantzia); PANDORANIN KUTUSU / PANDORA'S BOX, Yesim Ustaoglu (Turkia - Frantzia - Alemania - Belgika); EL PATIO DE MI CÁRCEL, Belén Macías (Espainia); TIRO EN LA CABEZA, Jaime Rosales (Espainia); THE BOY IN THE STRIPED PYJAMAS, Mark Herman (Britainia Handia - AEB); TROPIC THUNDER, Ben Stiller (AEB); VICKY CRISTINA BARCELONA, Woody Allen (Espainia - AEB); AVAZE GONJESHK-HA / THE SONG OF SPARROWS, Majid Majidi (Iran); BURN AFTER READING, Joel Coen, Ethan Coen (AEB); CSNY/DÉJÀ VU, Bernard Shakey (AEB); ENTRE LES MURS, Laurent Cantet (Frantzia); HAPPY-GO-LUCKY, Mike Leigh (Britainia Handia); L'HEURE D'ÉTÉ, Olivier Assayas (Frantzia); HIMLENS HJÄRTA / HEAVEN'S HEART, Simon Ståhø (Suedia - Danimarka); HUNGER, Steve McQueen (Britainia Handia - Irlanda); LAKE TAHOE, Fernando Eimbcke (Mexiko); LEMON TREE, Eran Riklis (Israel - Frantzia - Alemania); TOKYO SONATA, Kiyoshi Kurosawa (Japonia - Holanda - Hong Kong); LA CASA DE MI PADRE (EH - Gorka Merchan)...



literatura dosi txikitan

ITXARONGELAKO IRUDIAK

t. mikel ayerbe




Iraila ezkerreko hankarekin hasi nuen. Lanera itzultzearekin batera, zaintiratu bat egin bainuen ezkerreko belaunean, modu nahiko patetikoan gainera. Hortik aurrera, betikoa: larrialdietara bisita eta itxarongelako ordu luzeak.

Eskerrak beti liburu bat edo beste eramaten dudana poltsan. Izan ere, edozein itxarongelatan edozein irakurteko konpainia handia egiten du. Larrialdietan (eta hipokondriakooi bereziki) ikusten diren gaixo eta zaurituei bizkarra eman eta burua irakurketan makurtzeko aukera eskaintzen baitu liburu batek. Bada, han nengoen ni, belarri luzearekin, liburu eskuartearen. Eta bat-batean, ondoan nuen gizonak "¿Perdona, pero acaso está aprendiendo algún idioma?" bota zidan brastakotan. Nik ez nekien zer erantzun, ezta zergatik galdetzen zidan halakorik ere... "No, como te he visto con un libro lleno de imágenes y dibujos..." gaineratu zuen gizonak; eta orduan bai, orduan dena ulertu nuen. Izan ere, ni 'Fun home: una familia trágica' nobela grafikoaren irakurketan ari nintzen. Hitzak berak esaten duen bezala, nobela gisa irakurtzen diren komikiak lirarteke nobela grafikoak. Eta nola ez, gizonak pentsatu zuen marrazki eta irudien bidez hizkuntza berriratu bat ikasten ari nintzela. Nik ezetz, besteak bezalako liburu bat zela.

Ez nion ezer gehiago esan. Ez nion esan irudi batzuek mila hitz baino gehiago balio dutela eta ondo aukeraturako hitz gutxi batzuk irudiaren zati bihurtzen direla. Ez nion esan irudiz eta marrazkiz osaturako liburu askok ez dutela hitzen beharrik edozein nobela baino gehiago kontatzen. Ez nion esan komikiak irakurtzea oso entrete-nigarria dela. Ez nion esan ilustrazio, marrazki eta irudi batzuk ulertzea ez dela hain erraza. Ez, ez nion ezer gehiago esan. Irudiak eta hitzak irakurtzen jarraitu nuen ■





blind melon



ARF, AZKENA ROCK FESTIVAL

GASTEIZEK ERE BADU BERE FESTIBALA!

Aurtengo edizioan berriro Azkena Rock Festival-ek bere lekua lortu du estatuan egiten diren beste festibalekin konparatuz

Irailaren 4an, arratsaldeko 6etan, 6.000 pertsona inguru ginen prest hiru eguneko makrofestibalean parte hartzeko. Puntu-puntu eta energiaz beterik Lagartija Nick-ekoek 'Inercia' disko osoa jo zuten beren aurrean ginen musikazaleontzat...

idoia breñas

Hurrengo taldeak, The Yawning Man-ek, berriz, ez zuen hainbeste arrakastarik izan, baina 3 musikari izateko "zarata" nahikoa atera zuten. Ziur asko ezezagunagoak eta bigarren taldea izateak bere eragina izan zuen. Dena den, jakin-mina piztu zitzaidan Kaliforniako taldea entzun eta ikusiz gero. Motorrak berotzen hasi ahala Hayseed Dixie ikusteko eta dantzatzeko aukera izan genuen. Hauek AC/DC edota Led Zeppelinen bertsioak bluegrass estiloan dantzatzeko aukera eman ziguten, izugarri dibertigarriak!

Iowako Radio Moscow taldeak "Kaixo Vitoria" batekin ekin zion bere kontzertuari, halere, bere rocka ez zen leku guztietatik

entzun eta itzalean geratu ziren. Gaua helztearekin batera Alemaniako The Boss Hoss-ekin argia piztu zen berriro Azkena Rock-en.

festibala datuetan

osteguna, irailak 4: 6.231 lagun
ostirala, irailak 5: 12.578 lagun
larunbata, irailak 6: 11.054 lagun
abonua: 75 ? / osteguna: 20 ?
/gainontzekoak: 40-45 ?
150.000 wateko soinu ekipoa
350.000 wateko argiztapena
300 langile
eta milaka litro garagardo!!!

Bere zazpi partaideak oso era dinamikoan agertu ziren, euren cow-boy itxura eta soinuaz. Gaueko arrakastatsuenak izan zirela esatera ausartuko nintzateke. Ondoren, Ramones faltsuak (Marky Ramone) hasi ziren oso era kementsuan beti bezala "one, two, three, for..." hasierarekin, eta Ramones-en abesti ospetsuenak entzun ahal izan genituen. Dantzatzen jarraitzeko asmoa geneukanean Lemonheads-eko Evan Dando agertu zitzaigun eta une askoz lasaiagoa aurkeztu zigun. Egia esanda, niretzat Evan Dando izan da kantari gustukoenetako bat, baina ostegun horretan ez zuen lortu publikoarekin konektatzea. Hotz handiegia Mendizabalan akaso?



john cale





arf 08



hanoi roks

Ostiralean, kontzertuak oso goiz hasi ziren. Cadizeko Viaje a 800 taldearen hard-rock potentearekin batera bazkaria azkar-azkar irentsi genuen. Ostean, 15:10ean, festibalean euskaraz abestu zuen talde bakarra Azkenako eszenatokira igo zen: Sorkun & Vicepresidents. Eta nola ez, oso gustura aritu ginen bere kantuak abesten. Hurrengo bi taldeak haizearen aurka borrokatu behar izan ziren, baina beren adorea ere utzi zuten eszenatokian: Norvegiako Animal Alpha eta Seattleko Truly. Lehenengok punk-rocka jo zuten eta bigarrenak, aldiz, indie-popa. Mendizabala betetzen hasia zen 12.000 lagunera heltzeraino eta rockanrolla entzuteko aukera izan genuen Finlandiako Hanoi Rocks eta Blue Cheer-en eskutik. The Sonics-ekok kontzertu polita eta ustekaberik gabekoa eskaini zuten, beren estiloan. Danko Jonesen txanda heldu eta Azkenazaleok guztiz sartuta ginen festibalean. Tipo harro eta dotore batek galdezten zigun ea zein zen abeslariaren izena, kar, kar, kar... hori bai rockero harroputz eta airoa! Hortik gutxira Ray Davies hasi eta nola ez, Kinks-en kanta arrakastatsuenak jo zituen: Lola, All Day and All Of The Night. Sex Pistols-ek taldearen abesti entzutetsuenak taularatu bitartean zitzu bizian beste eszenatokira lekua hartzera joan izan behar ginen, Blind Melon-en kanta abestu eta gozatzeko, nahiz eta Shanon Hoon egon ez. Gorputza jada nekaturik, ostiraleko azken kontzertua ikusi (The Quireboys) eta baita Rachel Arieffen Anti-karaokeko jende-

aren mailarekin harritu ere. Abeslari profesionalak ziruditen!

Konturatu gabe, festibaleko azken eta nire ustez egunik garrantzitsuena heldu zen. Nafarroako Las Culebras, nahiko ondo egokitu zitzaizen ordutegia kontuan hartuz. Eguzkipean The Royal Cream eta Baby Woodrose zaratsatuak. Energiatzu beterik agertu ziren Sex Museum. Harrigarriak! John Cale & Band bere rock esperimentalarekin izugarria. Orange Goblin eta Duff McKagan's Loaded, arratsaldea pasatzeko bi talde rockeroak.

Mark Lanegan eta Greg Dulli erlaxatu eta bokata era goxoan jateko ere egokienak Gutter Twins proiektuarekin.

Gaua heltzerako The Jayhawks izugarriak entzun genituen. Festibalaren kontzertu hunkigarriena eta onena. Gary Louris eta Mark Olsonen taldearen abesti sonatuenak jo zituzten, Tomorrow The Green Grass edota Hollywood Town Hall diskoetako kantu esanguratsuenak. Dinosaur Jr.-ek poliki-poliki hasi eta euren ohiko noise eta gurgerekin bukatu zuen.

Los Lobosekin oso ondo pasatu genuen, La Bamba eta guzti jo zutelarik, baina tex-mex soinua betiere aintzat hartuta. Festibalaren edizio honi amaiera emateko Jon Spencer Blues Explosion izan genuen gure artean. Taldearen izenak berak esan bezala bertan lehertzeko edo etxera leher eginda joateko aukera aparta! ■

BITXIKERIAK: EL TEMPLO DEL MAL

Gasteiztar musikazale talde bat. Blog propioa daukate: eltemplodelmal.blogspot.com. Urtean zehar musika eta kulturaren inguruan beren iritzia emateko gunea. Honetaz gain, merchandising bat sortu ohi dute Azkena Rock Festival-erako (pegatinak, txapak eta kamisetak).



marky ramone



sex pistols
Fundación Sancho el Sabio Fundación

torresagasti baserria gaur



ERRODRIGO ZARATEKOAREN KANTU EPIKOA

t/a.: kike fdz de pinedo

Euskal literaturaren sorrera Etxepare eta Lazarragarekin lotu ohi dugu. Lehenago, ordea, ahoz aho zabaldutako literatura herrikoa sortu zen gurean Europa osoan bezalaxe (Errolanen kantua, Mio Cid, Nibelungoak...). Hemen gehienak ahozko bidean galdu ziren, baina, Garibaik, Lope de Salazar edo Iburguen-Cachopin bezalako historialariek bakan batzuk idatziz salbatu zituzten. XIV eta XV. mendeetako artean banderizoen arteko borrokak eta liskarrak jasotzen dituztenak nagusitzen dira. Guk Arabarekin loturaren bat duten *Martin Bañez-en eresia* (hurrengo alean) eta *Errodrigo Zaratekoaren kantua* izenekoetan jarriko dugu arreta. Azken poema hau Iburguen-Cachopin kronikan jasota dago. Duela gutxi Julen Arriolabengoa aramaiorak kronika hau pazientzia eta lan handiz transkribitu, tesia burutu eta liburu bat kaleratu berri du: *Euskara Iburguen-cachopin kronikan*. Kronika hau Bizkaiko Batzarren enkarguz etorri zen, nonbait bizkaitarren historia loriatsua erakusteko

asmoz. Erdaraz idatzitako obra hau XVI. mendekoa da eta bukatuta ez dagoen arren idatzitakoa ez da nolana hikoia, 184 koaderno eta 6.000 folio. Informazio baliotsua dakar eta tartekako euskarazko zenbait errefracu eta poema benetako pagotxak dira. Hauetariko bat, hain zuzen, *Errodrigo Zaratekoaren poema* dugu. Kantu epiko eder hau 1574. urteko idatzizko kronika batetik jaso omen zuten, jatorria ahozko tradizioan egon arren. Poemaren gertaerak eta pertsonaia gehienak **Zuia-Zigoitia-Legutio inguruak** dira. Beraz, poemaren egilea/k jakitea ezinezkoa bada ere, baliteke kantua inguru honetan sortzea. Pasadizoa 1468 urte inguruan gertatu bide zen. Zigoitia, eta zehatzago Markina-Zuia, nork bereganatuko etengabeak gertatu omen ziren erasoak, hilketak eta etxe-suntsipenak. Atzean botere borroka bi leinuren artean. Batetik, Legutioko dorretzeko **abendañoarrak** ditugu, jatorriz Gasteiz ondoko Abendañoko San Martingoak, ganboar bandokoak. Bestetik, Zarate herrian, maiz erasotako dorretxea zuten **zaratearrak**, gerora Zuiako Markinara (egun *Sagastidorrea*



zuia-markinako torresagasti baserria, behinola zaratearren dorretxea

baserria dagoen lekuan) eta Etxabarri-Lukianora zabalduak; oñeztarrak eta mendozatarren bandokide. Liskarrak aspaldikoak ziren Zuia-Zigoitian, esaterako, Murgiako plazan dagoen harrizko gurutzak 1450ean Pedro de Abendañoren aginduz Fernando de Zarateren hilketa gogorarazten digu. 1468 urte inguruan, ordea, poemari esker badakigu abendañoarren eraso bortitzaren ondorioz Errodrigo Zaratekok Markinako dorrea galduko duela, baina gaitz erdi!, heriotzatik ihes egingo baitu. Poemarekin batera datozen azalpenek argitzen digute gertaera: Abendañok Legutioko artilleria eramanda tiro batez (katapultarekin?) desegin omen zuen zaratearren dorrea (dirudienez Markinakoa, egun Torresagasti baserri bihurtuta). Errodrigok amore eman eta preso hartzen dute eta Abendañok hilik ikusi nahi eta oihuka dio: *-Au il eguidaçu, villau au il eguidaçu* (Hil egidazue villano hau!). Egoera ikusita, Abendaño laguntzera etorritako Beloradoko alkateak zaldi bat eman dio ihes egin dezan. Zaratek bandokide den Hurtado Diaz de Mendozaren Morillasko dorretan bilatuko du babes.



Arma escuduac on dira dardos,
 pareric estabe canporacos,
 çaratearrak galdu ei dabe Marquia-Çuya çeculaco.

E(rrodrigo) Çarateco, selan engana sindean
 jaun Juane Abendañocogas gudua arçen sanean,
 bi milla guiçon oi ditus bere lelengo deiean,
 lau milla bere baleudeque premia letorreanean
 Cortaçarretarrak delantereia, lbarguendarrac urrean,
 Gastelan Sarmientuarric asco, es pareric arean,
 jaun Asençio Guebaraco ganean darda ordean,
 Billela ta Arteaga, anage onac urrean,
 saldi suriac on (.t.. .c..d..)rreanean,
 Onac arin, gog(oa) sendo, arerioaen asean.

Errodrigo Çarateco saldi urdinaen ganean,
 bosteun caxcabel urregorrisco saldiac idureanean,
 carrerea laster eroean Erbitegui ganean,
 arerioac ur jarraica arrebearen semea,
 ona chipi, orpo laster, Abendanochea.
 -Arren, echosu orain osaba, bixooc justa gaitean.
 - Echi egidac orailloba, gau bixiric noean,
 neure biçian enoaque Urquiçuren contrean,
 omenaje eguingo joat biçia dodan artean,
 bela vic sar naxaitec Billa Realgo torrean

J. Arriolabengoaren azalpenaren laburpena

- Lehenengo bi lerroetan hasierako ohiko formulak ditugu
- 3. lerroan poemaren laburpena, alegia, zaratearrek galdu dutela Markina-Zuia sekulako
- Ondorengoetan Errodrigok bere burua engañatzen duela Abendaño indartsuaren aurrean, izan ere, 2.000 soldadurekin etorria da (harrigarria kopurua)
- Gero Abendañoaren bandokideen kokapena guduan
- Bandokide hauen gudurako gaitasunaren gorai-pamena
- Errodrigo Zarateko bostehun kaxkabel urregorizko zaldiaren gainean
- Lasterka ihesi doa Erbitegi (egun Albertgi, Markinaren mendebaldeko mugan) gainean
- Atzetik datorren Abendaño txipia eta azkarak ia harrapatu du Errodrigoren iloba
- Ilobak Errodrigori itxoiteko esaten dio burruratu nahi du eta. Osabak, ordea, uzteko diotso, bizirik atera daitezen
- Errodrigok zin dago ez dela altxatuko Urkizu-Abendañoaren kontra
- Legutioko presoaldia gogoan bela bi ikusi ditu: Abendaño aita-semeak



Errodrigo Zaratekoren kantuaeren lehen 13 bersoak

arababixotzian



m. iñigo sarasola



zutabea

t. erlantz urtasun antzano.
historialaria



Urriko orriei so

Udaren amaierareki baterat udazkena iritsi da, eta gure olerkariak ohartzen dira aldaketaren edertasunaz. Hor da, kasu, Benito Lertxundi: "urdira, itsasoari, irailak eman zion". Edota, haratago oraindik, Balerdi-Balerdi taldearen ekarpena: "hostozko zubia daukagu aurrean".

Tartean, baina, errealitate petralak ortzimuga mugatzen digu, eta hamaika epaiketa bidelagun, ez dirudi urrian balizko erreferendum ditxosoa burutuko denik euskal mendebaldean, ikerketa soziolinguistikoen arabera Franco hil zenetik gure hizkuntzaren erabilpena Bizkaia eta Araban lehendabiziko aldiz jaitsi den arren. Hortaz, laino beltzak ortzadarraren izpi koloretsuetan pausatzen dira, geroa goibelago margotzen.

Horregatik, beharbada, lagun min hurbil batek zera erran dit: "hi, Erlantz, etzak idatz betiko moduan, gure historia nahikoa tristea baituk, idatzak bertze gauza batez!".

Ados, ba, historiako printze tipiagoei tartea, beraz. Amurrioko txistulariak, ofizialki, urrian hasi ziren jotzen. Eta, urrian ere, Amurrioren ere, "Destilería Manuel Atxa" izenekoari loturiko museoa zabaldu zen. Aditu duzue "Urria kulturala" delakoa? Zuia eta Legution baietz. Eta, zer erranik ez, makina bat jai geratzen da zain urriko egutegian: 7an Agurain nahiz Urkabustaitzen, 12an Zuian eta 28an Amurrioren.

Edonola ere, zer nahi duzue, ezin urria igaro bertze datu serioago bat eskaini gabe: 1834ko urriaren 27an Dulantzi inguruetan gertatu zen gatazka handia, non Zumalakarregiren karlistek irabazi baitzieten O'Doyle liberalak agintzen zituen Madrilgo soldaduei. Horri esker Europako egunkarietan bilakatu zen ospetsu Txintxetru toki izena, baita Arrieta edo Etxabarri Benta ere, non urriaren 28an, erran nahi baita ondorengo egunean, karlistek bertze garaipen handi bat lortu baitzuten. Garaituriko espainiar militar buru batek idatzi zuenez, "*en todas partes abandonaron mis soldados sin resistencia, no bastando mi ejemplo para contener ni para dejar de huir vergonzosamente, verificándose que todo se ha perdido, pues se perdió el honor*".

Urria da, bai, baina orbelezkoa da aitzinean dugun zubia, itsasoan ere islatzen dena. Posdata: urriaren 19an Nafarroa Oinez ospatuko da Iruñean. Bertze zita bat arabarrondako... ■

geusex@emaize.com


Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:

geusex@emaize.com.

Emaize Sexologia Zentroko profesionalak erantzungo dizute.



emaize sexologia zentroa
gizon eta emakumeentzako arreta

bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz /
945265896 / www.emaize.com



Aupa, 16 urte ditut eta zakila alde baterantz alboratua dut. Orain arte ez diot garrantzirik eman, baina orain bikotea dut eta lotsa sentitzen dut. Gainera, larrua jotzean arazorik izango dudan beldur naiz.

Mutil gehienek (guztiak ez esateagatik), zakila alde batera edo bestera alboratua duzue. Masturbatzeko eta beste pertsonekin sexualki harremantzeko ez du inolako garrantzirik, guztiz arrunta da. Baliteke bikoteak hori jadanik jakitea, hala ere berarekin komenta dezakezu nahi izanez gero. Dena den lasai, bera ez da zurekin ateratzen zure zakilaren norabideagatik, zure izaera eta gorputz guztia gustuko izango du. Ziur asko gozatzen duzuela elkarrekin. ■



Kaixo, 21 urteko neska naiz. Duela hiru aste ez dut sexu-harremarik izan, baina hilerokoa ez zait jaitsi (5 eguneko atzerapena dut). Posible da haurdun egotea edo beste arrazoi bat izan daiteke?

Hilerokoa arrazoi desberdinengatik atzera daiteke, horien artean bat haurdun egotea izan daitekeelarik. Urduritasunak, bidaiek, elikadura aldaketek... ere, atzerapen edo aurrerapenak eragin ditzakete.

Maiz hilerokoa ez zaigula jaisten ikustean urduri jartzen gara, batez ere gure zikloak erregularrak direnean, eta horrek atzerapena luzatzea dakar. Antisorgailuren bat erabili bazenuten oso zaila da haurdun gertzea. Hala ere, lasaiago geratzeko botikan haurdunaldi froga eros dezakezue eta segituan jakingo duzue erantzuna. Froga egitean konfiantzazko norbaitekin (mutila, lagun mina...) egotea komeni da, lasaiago sentituko baitzara. ■

Iturrieta



bertako sagardoa



**OSTEGUNETIK AURRERA
IREKITA.
Sainontzeko egunak,
enkarguz.**

Sagardotegia



ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593



ESKASOLA

ZER, EZTABAIDAK HIRIKO ESKULTUREKIN? BA HONA HEMEN GIZARTEAREN PROPOSAMENA!!



Zabaldu!

lagunartea zure euskara bizipenak zure ideiak
ahoa zure zaletasunak euskaraz bizitzera

Hurbildu mintzalagunera!



IZEN EMATEA ETA INFORMAZIOA

Mintzalaguna - GEU elkarte
Pedro Asua kalea 2 (Seminario zaharra 3. solairua)
Gasteiz. Tel. 692 730 444
mintzalaguna@geugasteiz.com

Sustatzaileak



Elkarlanean



Laguntzaileak



CLINICAS **VITAL DENT** ONENAK ODONTOLOGIAN

TRATAMENDU GUZTIAK 60 EUROTIK AURRERA HILEAN

INPLANTOLOGIA: TEKNOLOGIA BERRIENA

- FUNTZIONALTASUN ETA ESTETIKA BIKAINAK
- GAIK, TITANIO EDO GALVANOA, BIOLOGIKOKI BATERAGARRIAK



ORTODONTZIA: DOAKO ORTODONTZIAREN PLANGINTZATZEA

- KOLORETAKO ORTODONTZIA
- ORTODONTZIA PREBENTIBOA
- ORTODONTZIA IKUSTEZINA



HORTZ ESTETIKA: ZURIKETA ARGI HOTZAZ

- 4 TONU ZURIEN BEHERATZEA SAIO BATEAN



• ORTOPANTOMOGRAFIA HAZIERAKO DIAGNOSTIKOAN

VITORIA-GASTEIZ
GORBEIA KALEA, 13
945218260

**Diagnostikoa, aurrekontua
eta erradiografia: DOAN*.**